

# **ALEGIAKO HAURRAK ETA HITANORANZKO JAUZIA**

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA:** Endika Arnedo Garcia

**GRADUA:** Lehen Hezkuntza

**MINORRA:** LHko Berrikuntza Proiektuak

**ZUZENDARIA:** Garbiñe Bereziartua Etxeberria

**2022KO EKAINA**

## LABURPENA

Hitanoa euskaraz modu informal batean zuzentzeko tratamendua da eta azken urteetan haur eta gazteen hitanoaren erabilpenak izan duen beherakadaz kezkatutik, Gradu Amaierako Lan honetan Alegiako haur eta gazteak hitanoarekin duten harremana, hitanoarekiko iritzia eta hitanorako jauziaren prozesua ikertu da, helburu nagusizat izanik Alegiako haurren hitanoranzko jauzia ezagutzea. Horretarako, hitanoa zer den, zein funtzio sozial duen, zein konnotazio ezartzen zaizkion, zeintzuk diren hitanoaren erabileraren aldagaiak eta transmisio gune nagusien egoera nolakoa den aztertu da; Alegiako 8-11 urte bitarteko haurrei eginiko behaketa, galdetegi, bakarkako elkarrizketa zein talde-erabaketa bidez. Hitanoaren ezagutza eta aldeko ideologia izatea beharrezkoa dela ikusi da hitanoranzko jauzia emateko, baina faktore gehiagok ere eragina dutela hori lortzeko bidean.

**Hitz gakoak:** Hizkuntza-tratamenduak, hitanoa, hizkuntza-mudantzak, gazte-hizkera, gazteak, Alegia

## RESUMEN:

El *Hitano* es un tratamiento de corrección informal en euskera y preocupado por el descenso del uso del *Hitano* en los últimos años, en este Trabajo de Fin de Grado se ha investigado la relación de los jóvenes de Alegia con el *Hitano*, su opinión sobre el *Hitano* y su proceso de mudanza al *Hitano*, con el objetivo principal de conocer el proceso de mudanza de los jóvenes de Alegia hacia el *Hitano*. Para ello, se ha analizado qué es el *hitano*, su función social, las connotaciones que se le asignan, las variables del uso del *hitano* y la situación de los principales focos de transmisión, a través de la observación, un cuestionario, entrevistas individuales y discusión grupal a niños y niñas de 8-11 años de Alegia. Se ha concluido que poseer un conocimiento del *hitano* y tener una ideología favorable hacia ella es necesario para dar el salto hacia el *hitano*, pero también que hay más factores que influyen en su consecución.

**Palabras clave:** Tratamientos lingüísticos, *hitano*, mudanzas lingüísticas, lenguaje juvenil, jóvenes, Alegia

**ABSTRACT:**

*Hitano* is an informal way of speaking in Basque and concerned about the decline in the use of *Hitano* in recent years, this Undergraduate Dissertation has investigated the relationship that young people from Alegia have with *Hitano*, their opinion on it and their process of starting to speak in *Hitano*, the main objective of this work being to find out about the process of starting to use said speech in this town. For this reason, it has been analysed what *Hitano* is, its social function, the connotations assigned to it, the variables of *Hitano*'s use and the situation of the main centres of transmission. This has been done through observation, a questionnaire, individual interviews and group discussions with boys and girls from Alegia who are 8-11 years old. It has been concluded that having a knowledge of *Hitano* and a favourable ideology towards it are necessary factors to make the leap towards this speech, but there are also other circumstances that influence its achievement.

**Keywords:** Linguistic treatments, *Hitano*, linguistic moves, youth language, young people, Alegia

## AURKIBIDEA

1. SARRERA	6
2. MARKO TEORIKOA	7
2.1. Euskarazko hizkuntza-tratamenduak	7
2.2. Hitanoa: Generoa	9
2.3. Hitanoaren gaineko konnotazioak	10
2.4. Hitanoaren erabilera: aldagaiak eta hastapenak	11
2.5. Hitanoaren transmisioa	12
2.5.1. Etxea	13
2.5.2. Kalea	14
2.5.3. Eskola	15
2.5.4. Komunikabideak / Aisialdia	16
2.6. Hitanoaren funtzio soziala	17
3. METODOLOGIA	18
3.1. Testuingurua	18
3.1.1. Alegia	18
3.1.2. Alegiako Herri Eskola	18
3.2. Helburua eta ikerketa-galderak	19
3.3. Datuak biltzeko teknikak	19
3.3.1. Behaketa	20
3.3.2. Galdetegia	20
3.3.3. Bakarkako elkarrizketak	21
3.3.4. Talde-eztabaidak	22
3.4. Parte hartzaileak	23
3.5. Datuak aztertzeke prozesua	24
4. IKERKETA EMAITZAK	25
4.1. 1. ikerketa-galdera: Zer harreman dute Alegiako haurrek hitanoarekiko?	25
4.1.1. Ezagutza	25
4.1.2. Hitano <i>input</i> -a	26
4.1.3. Beraiei hika	27
4.1.4. Beraiek erabili	28
4.2. 2. ikerketa-galdera: Alegiako haurrek zein iritzi eta uste dituzte hitanoarekiko?	31
4.2.1. Hitanoarekin erlazionatzen dituzten ezaugarriak eta elementuak	31
4.2.2. Hitanoarekiko zaletasuna	33
4.3. 3. ikerketa-galdera: Zein ezaugarri ditu hitanorako jauziak Alegiako haurren kasuan?	35

4.3.1.	Jauziaren lehen pausua noiz, non, norekin eta nola?	35
4.3.2.	Zergatik ematen dute (edo ez) jauzia?	36
5.	ONDORIOAK	37
5.1.	1. ikerketa galdera: Zer harreman dute Alegiako hurrek hitanoarekiko?	37
5.2.	2. ikerketa-galdera: Alegiako hurrek zein iritzi eta uste dituzte hitanoarekiko?	39
5.3.	3. ikerketa-galdera: Zein ezaugarri ditu hitanorako jauziak Alegiako hurren kasuan?	40
6.	BIBLIOGRAFIA	42
7.	ERANSKINAK	45

## 1. SARRERA

Jarraian aurkeztuko den Gradu Amaierako Lan honetan hitanoaren inguruko ikerketa bat egin da. Hitanoa euskarak duen tratamenduetako bat da, azken urteetan indarra galduz joan dena. Beraz, gaur egun Alegiako herrian ume eta gazteek hitanoarekiko nolako harremana duten ikertu da batetik; zein iritzi eta uste dituzten hitanoarekiko bestetik; eta hitanorako jauziak zein ezaugarri dituen azkenik. Alde batetik herrian hitanoaren presentzia nolakoa den eta horren zergatia ulertzeko eta bestetik gazteak hitanoa erabiltzera zerk bultzatzen dituen jakiteko.

Marko teorikoan ikusiko da hizkuntza baten transmisioa nola ulertzen den (lehen eta orain) eta hitanoaren transmisio guneak nolakoak diren: etxean, kalean, eskolan eta komunikabide/aisialdian. Horrez gain, hitanoaren gaineko konnotazioak (lehen eta orain) azalduko dira, aldaketa bat eman dela azpimarratuz. Hitanoa erabili edo ez aukeratzeko, aldagai hauek nolako garrantzia duten ikusi da: hizketa-gaia, testuingurua, adina, belaunaldia, sexua, senidetasun maila, talde-kidetasuna eta laguntasuna. Hizkuntza-mudantza kontzeptuaz ere hitz egin da, hitanorako jauzia zein momentutan egiten den ulertzeko.

Ondoren ikerketeka egiteko erabili den metodologia deskribatzen da, ikerketaren helburuak, parte hartzaileak eta datuak biltzeko erabili diren teknikak. Ikerketa emaitzetan ikerketa galdera bakoitzari erantzuna emateko teknika ezberdinetatik lortu den informazioa bildu da. Amaitzeko, marko teorikoan esan denaren eta ikerketan ikusi denaren arteko eztabaida egingo da eta hortik ateratako ondorioen berri emango da.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. Euskarazko hizkuntza-tratamenduak

Euskarak baditu hainbat tratamendu eta euskaldunak beste euskaldunei euskaraz zuzentzeko tratamendu bat edo beste erabiltzeko, testuingurua hartzen du kontuan; non, noiz eta norekin ari den hizketan, alegia. Etxean nahiz kanpoan izan, hizketarako edo idazketarako izan, lagunartean edota errespetua erakutsi nahi den pertsonen aurrean izan... desberdina da euskaldun batzuk erabiltzea aukeratzen duten tratamendu mota eta horren arabera erabiltzen dituzten aditzen egituraketa.

Lau tratamendu mota ditu euskarak: xuka, berorika, zuka eta hika. Baina horietako bi ia desagertuak daude: berorika eta xuka. Horrez gain, hika ere baztertua du euskaldunen ehuneko handi batek; ikasi ez duelako edo hitz egiteko ohiturarik ez duelako. Beraz, euskaldun asko dira tratamendu bakarraz baliatzen direnak haien elkarrizketetarako: zuka (Yurramendi, 1996).

Gipuzkoan xuka ez dela hitz egiten esan genezake, hika bezala tratamendu afektiboa dugu hau, baina sexu bereizkuntzarik gabekoa (Alberdi, 1996)

Berorika, aldiz, garai batean gehiengoak apaizei zein medikuei hitz egiteko erabili izan bazuen ere, egun erakusten duen asimetria eta gehiegizko begiruneagatik galtzear aurkitzen da (Alberdi, 1996).

Zuka zabalduen dagoen euskarazko tratamendua da, euskaldun gehienek Euskal Herri osoan zehar erabiltzen duten tratamendua denekin komunikatzeko. Eztabada, neutroa edo tratamendurik gabea ere deitzen zaio, baina gaur egun 'zuka' (ez-alokutiboa) bezala da ezagunagoa eta lan honetan ere honela deituko diogu tratamendu mota honi.

Hitanoa dugu aztergai ikerketa lan honetan, beraz, hitanoan jarriko dugu begirada. Harluxet Hiztegi Entziklopedikoak (<http://www1.euskadi.net/harluxet/>) ematen digun hitanoaren definizioa honakoa da: "Hi izenordainaren erabileran oinarri duen lagunarteko tratamendua. Hi bigarren pertsona aditzaren nor, nork edo nori kasua denean, dagokion adizkia erabiltzen da, eta hi pertsona aditzaren partaide ez denean, dagozkion forma alokutiboak erabili behar dira".

Hitanoa euskarazko tratamendu informala da, gertuko adiskideei zuzentzeko modua. Gehienbat, berdinen artean eta goitik beherako harremanetan (guraso/semi-alaba edo nagusi/langile) entzun ohi da, ez horrenbeste behetik gorakoetan (Alberdi, 2011). Hitanoan pertsona komunztadura bitxia gertatzen da, alokutibotasuna izenekoa. Alokutibotasuna, nahiz eta solaskidea ez izan aditzaren argumentua, aditza erabiltzean bigarren pertsona markatzea da (Alberdi-Zumeta, 2019). Beraz, hitanoak hizketa lagunari egiten dio erreferentzia eta, horrez gain, gertutasuna adierazten dio.

Hitanoa erabiltzean, aditza modu ezberdin batean jokatzen da; bigarren pertsonako hi izenordaina erabiltzen da oinarritzat. Adibidez: *Etorriko zara?* (zuka) eta *Etorriko haiz?* (hika). Bigarren pertsonari erreferentzia egiten dion “zara” adizkiari hi izenordaina oinarritzat jarri eta “haiz” bilakatzen da, adizkiaren bidez elkarrizketatuarekiko gertutasuna erakutsiz.

Baina, esan bezala, berezitasun bat gertatzen da hitanoa erabiltzean, zehazki *hi* bigarren pertsona izenordaina aditzak islatzen duen ekintzako partaide ez denean, kasu horietan aditzari dagokion forma alokutiboak erabili behar dira, hots, lehen eta hirugarren pertsonari dagozkien forma bereziak. Hau da, hika erabiltzean NOR, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona-markez gain, hizketa-lagunari dagokion pertsona-marka ere agertzen da aditzean. Adibidez:

- Aita etorriko DA nire bila. (Zuka, ez alokutiboa)
- Aita etorriko DUK/DUN nire bila. (Hika, alokutiboa)

*Etorriko duk/dun* esaten duen hiztunak *etorriko da* dioenak baino zertxobait gehiago esaten du. Perpauseko NOR sintagmarekin komunztadura du aditzak (aita), baina, horrez gain, lehen adibideko aditzak ematen ez digun beste informazio bat ere eskaintzen digu: *etorri duk/dun* dioenak *etorri da* esaten du –beraz, lehenengo adibideko informazioa ere ematen digu–, baina baita hiztunak gogoan hartzen duela ere hizketa-laguna. Beraz, hauxe da egitura horren eskema:

- Etorri duk/n = etorri da + hirekin ari nauk/naun (mutila edo neska).



## 2.2. Hitanoa: Generoa

Hitanoa da euskarak morfologikoki generoa bereizten duen egitura bakarra, hartzailearen generoaren arabera, noka edo toka hitz egingo zaio. Noka solaskidea emakumea denean erabiltzen da (Amona etorri *dun* alabaren bila); toka, berriz, solaskidea gizonezkoa denean (Amona etorri *duk* alabaren bila).

Hika solas egitean, bestearen generoa kontuan izan behar da, emakume edota gizon izan, aditz markak ezberdinak baitira. Alberdi-Zumetaren ustez (2019) hitanoak duen alde "txarra" da hori, gaztelaniaz edo beste hizkuntza askotan bezala solaskidea ikusi hutsarekin genero batean edo bestean ezartzen duelako, bestelako inolako aukerarik utzi gabe eta, horrez gain, talde mistoetan toka gailentzen delako askotan. Horregatik hitanoa hizkera atzerakoia eta tradizionalista dela eta jendea kanpo uzten duela dio Alberdi-Zumetaren elkarrizketatu batek, zaharkitutako hizkera dela.

Erabilerari begira jartzen bagara, handia da tokaren eta nokaren erabileren artean dagoen aldea; baita emakumeen eta gizonen hitanoaren erabileraren arteko aldea ere. Alde batetik Bereziartuak eta Muguruzak (2018) esaten dute hitanoa erabiltzen den ingurunean toka erabiltzeko joera handiagoa dagoela, bai mutilen artean, bai nesken artean. Bestalde, mutilen artean protagonismo handia izan ohi duela hitanoak baina nesken artean ia ez duela protagonismorik. Azken hori argi ikus genezake Bereziartuak eta Muguruzak (2018) egindako ikerketan jasotako emaitzetan, nesken artean hika %2,4k egiten duela, nesken %13k mutilei, mutilen %16,1ek neskei eta mutilen artean %87,1ek egiten duela hika baitiote.

Bistan da Azpeitiko egoerak beste zenbait herritako egoera ere islatzen duela, egin diren beste zenbait ikertetan ere egoera berdina baitago (Alberdi, 1994; Aztiker eta Villabonako Udala, 2021; Legorburu, 2018; Ozaita, 2014).

Gizarteak emakumeari goxotasun, fintasun eta feminitate bat exigitu izan dio eta aldiz hitanoari, baserri kutsuko trataera gisa hartu izan denez, kontrako ezaugarriak ezarri zaizkio; gizonei identitate maskulinoa garatzen laguntzen dizkieten ezaugarriak, alegia. Horra hor emakumeen artean hitanoaren presentzia gizonen artean baino nabarmen baxuagoa izatearen arrazoi nagusietako bat (Legorburu, 2018).

Baina Ozaitaren (2014) elkarrizketatuen artean nokaren inguruko bi muturreko jarrera daude: batzuentzat itsusia, zakarra eta zentzu negatiboa du eta besteei aldiz, polita eta gustagarria zaie. Hori esanda, hitanoaz hitz egitean kontuan hartu behar dugu desberdintasun handia dagoela hitanoaren barruan ditugun toka eta nokaren artean, bai erabilpenean, baita bat edo bestearekiko gizarteak duen edo historian zehar izan duen konnotazioen artean ere.

### **2.3. Hitanoaren gaineko konnotazioak**

Aurreko atalaren amaieran hitanoak generoarekin lotuta izan dituen zenbait balio aipatu ditugu. Atal honetan berariaz helduko diogu hitanoak izan dituen eta oraindik ere dauzkan balio edo konnotazioei.

Hizkuntza, sozializazioaren bidez ere transmititzen da; hizkuntza bere horretan ikasteaz gain, sozializazioaren bidez hizkuntzari atxikitako prestigio, balio, uste eta ideologia jakin bat bereganatzeko beharra dugu (Kasares, 2012). Ideologia horrek guztiak eragina du hiztunengan, izan ere, hori izango da hiztunaren jarrerak, hautuak eta erabilerak baldintzatuko dituenak (Joly eta Uranga, 2010).

XX. mendean hitanoak zuen ospea ez zen batere ona, ijitoen hizkera zakarra, bortitza, agresiboa, gogorra eta basatia zela sinesten baitzen. Ezaugarri horietako batzuk “egoki ezkontzen dira maskulinitate hegemonikoarekin; baina ez dira feminitate hegemoniko batentzat adjektibo egokienak” (Legorburu, 2018, 99. or) eta horren ondorioz izan da tokaren aldean nokaren galera askoz ere handiagoa. Baina Beitiak (2017) dioenez, gazteek ez dute hitanoaren inguruko konnotazio txarrik aipatzen, ez omen dituzte aipaturiko konnotazio txar horiek jaso, edo ez behintzat beste belaunaldietakoek bezainbeste.

Ospe txarra izatetik beste puntara jauzi eginez, hitanoak nolabaiteko prestigioa duela deritzote batzuk: “benetakotasun zigilua” (Legorburu, 2018, 100. or.) ematen dio hiztunari, hizkuntzaren ezagutza ohikoa baino altuagoa duen benetako euskaldun jatortzat hartzen da hitano hiztuna. Azpeitiko kasuan, hitanoa naturaltasuna, adiskidetasuna, goxotasuna, indarra, xarma, gaztetasuna eta konfiantzarekin lotzen dute gazte askok, horiei benetako hizkera iruditzen zaie, autentikoa, kalekoa eta bizia. Zuka aldiz, neutroa, formala eta hotza iruditzen zaie, hau da, guztiz kontrakoa (Alberdi-Zumeta, 2019). Horrek ez du esan nahi historian

zehir hitanoak izan dituen ezaugarri negatibo horien zantzurik geratzen ez denik; oraindik batzuentzat hitanoak hizkera gogorra eta zakarra izaten jarraitzen baitu.

Beraz, Alberdi-Zumetak (2019, 81.or.) dioen bezala “badirudi hitanoa ulertzeko eta bizitzeko beste era bat datorrela belaunaldi berriekin. Alegia, gazteek egoera irauli dute, orain —lehenago ez bezala— hitanoa oso ongi baloratzen eta asko estimatzen dutelako eta, gainera, prestigioa aitortzen diotelako”.

#### **2.4. Hitanoaren erabilera: aldagaiak eta hastapenak**

Alberdik (1993) jarraian aipatuko diren hamar aldagaiek zenbateko eragina zuten euskal hitano hiztunarengan ikertu zuen, azpimarratuz aldagai batzuk beste batzuk baino garrantzi gehiago dutela: hizketa-gaia, testuingurua, adina, belaunaldia, sexua, senidetasun maila, talde-kidetasuna eta laguntasuna.

Zenbait euskaldunentzat aldagai garrantzitsua da hizketa-gaia; askok brometarako soilik erabiltzen baitute hitanoa. Testuingurua aldagai erabakigarria izaten da askorentzat, kontuan hartzen baita tokia, unea, egoera eta bakarka edo taldean egotea hizketaren norabidea aukeratzeko garaian. Adina eta belaunaldia ere funtsezko aldagaiak ditu hitano-hiztunak eta Alberdik (2011, 130. orr.) hitanoaren inguruan emandako definizioari erreparatuz gero, argi ikus genezake bat egiten duela honekin: “gehienbat, berdinen artean eta goitik beherako harremanetan (guraso/semi-alaba edo nagusi/langile) entzun ohi da, ez horrenbeste behetik gorakoetan”.

Adin-ezberdintasunarekin gertatzen den asimetria hori ere gertatzen da askotan sexu- ezberdintasunarekin eta ondorioz sexu ezberdina dutenen artean hitanoa egiteko ohitura askoz ere baxuagoa da (generoaren inguruan hitz egin dugunean emandako datuak ere horren isla dira). Senidetasun-maila aldagai garrantzitsua da askorentzat, euskaldun asko baitira soilik etxekoekin egiten dutenak hika (Alberdi, 1993).

Elkartasuna edo talde-kidetasuna ere kontuan hartzeko aldagaia da, askorentzat hitanoa konfiantzazko harremanen, laguntasunaren seinale baita. Baina askotan gertatu izan da (familia, auzo, herri, lan, aisialdiko-talde, zaletasun...) kidetasunak indar gehiago edukitzea aipaturiko laguntasun horrek baino.

Esanak esan, Alberdiren (1993) ustez adina/belaunaldia, sexua, kidesuna eta laguntasuna dira pisu gehien duten aldagaiak hitano hiztunak hitanoa erabili edo ez aukeratzeko garaian.

Hala ere, tratamendu bat edo bestea aukeratzeak hiztun horrek tratamendu horiek bere hizkuntza-errepertorioan barneratuta edukitzea eskatzen du, eta une jakin batean tratamendu horretaz baliatzen hastea erabakitzea. Noiz gertatzen da hori?

Alberdi-Zumetak (2019) dioenez, hika hitz egiten hasteko prozesu hau txiki- txikitan, modu natural batean eta inkontzienteki eman daiteke edo hain txikiak ez direnean eta modu kontziente batean. Modu kontzientean egiten bada, Pujolarren eta Gonzalezen (2013) *hizkuntza-mudantza* kontzeptua dugu: hizkuntza (gure kasuan tratamendu) berri bat erabiltzen hastearen prozesuari deitzen diote *hizkuntza-mudantza* edo *muda* eta prozesu hori bizitzako beste aldaketa garrantzitsuekin batera gertatzen dela. Hitztunen bizitzetan mudak gertatzea ohikoa den sei aldaketa une identifikatu zituzten: (a) Haur Hezkuntzan sartzean; (b) DBHn sartzean; (c) unibertsitatean sartzean; (d) lan munduan sartzean; (e) familia osatzean; eta (f) guraso bihurtzean.

Hitanoaren eremura etorrita, Alberdi-Zumetaren (2019) iritziz garrantzitsua da ingurua eta gertuko harremanak alde izatea; inguruaren babesa eta harreman hikatzaileak izatea, alegia.

## **2.5. Hitanoaren transmisioa**

Soziolinguistikan eta hizkuntzaren antropologian orain arte modu bakarreko transmisioa soilik hartu izan da kontuan: goitik beherakoa eta norabide bakarrekoa. Haurrak soilik jasotzaile pasibotzat hartu dira eta horiei gurasoek edo helduek soilik transmititzen diete hizkuntza. Baina azken urteetan gazteen artean gehiago dira etxean euskara jaso ez duten hiztunak euskara etxean jaso dutenak baino, beraz, transmisioaren adiera hertsu hori zalantzan jarri da (Ortega et al., 2016).

Kasaresen (2012) ustetan transmisioa bertikala zein horizontala izan daiteke, hots, belaunaldien artekoa edota adinkideen artekoa. Beraz, euskararen transmisio

eredu tradizionala aldatu egin da, eta berdina gertatu beharko litzateke hitanoarekin ere; Bereziartua eta Muguruzaren (2020, 536. or.) ustetan: “Gazte gehienek haiek baino zaharxeagoak direnei entzun eta imitatu nahi horretan bilatu behar da, segur aski, hitanoaren indarguneetako bat”.

Kontuan hartu beharra dago hizkuntza edo hizkera baten transmisioaz hitz egitean ez garela soilik hizkuntzaren hitz eta egitura multzo zurrinak huts-hutsean igortzeaz ari. Aurrez ere aipatu bezala, kode linguistikoarekin batera, kode horien inguruko arau sozialak, ohiturak, usteak eta balioak ere transmititzeaz ari gara, besteak beste (Kasares, 2012).

Baina Kasaresek (2012) esan arren gaur egun transmisio horizontala indartsuagoa dela transmisio bertikala baino, hitanoaren kasuan nesken artean ez da horrela izaten. Alberdi-Zumetak (2019) azpeitiko gazteei eginiko elkarrizketen ostean, ondorioztatu baitu transmisio horizontala mutilen artean gertatzen dela baina ez nesken artean; hitanoa etxean jaso ezean, neskek ez baitute kalean eta berdinen artean ikasten, mutilek egin ohi duten moduan.

Ikusi dugu, beraz, transmisioa goitik beherakoa edo berdinen artekoa izan daitekeela; oraingoan hitanoa transmititzen den lau eremuri buruz hitz egingo dugu: etxea, kalea, eskola eta komunikabideak edo aisialdia.

### **2.5.1. Etxea**

Etxean jaso izan da tradizioz hitanoaren inguruko transmisioa eta gaur egun ere (nahiz eta modu apalago batean) hala izaten jarraitzen du. Bereziartuak eta Muguruzak (2020) egindako ikerketan ikusi dezakegu hori, elkarrizketatuei gurasoek hika (orokorrean) egiten dieten/zieten ehuneko handiagoa baita beraiek beraien seme-alabei egiten dietenen ehuneko baino. Hau da, etxean hitanoaren transmisioa handiagoa zela lehen orain baino, eten bat gertatu dela zenbait familian hitanoa itsusia delako, ergelen hizkuntza delako eta antzeko aurreiritziak egon direlako. Urte luzez hitanoaren inguruko arau sozialei men eginda, seme-alabak ez zitzaizkien gurasoei hika zuzentzen baina ohitura hori aldatzen joan da eta, Azpeitiko kasuan, belaunaldiak behera egin ahala gurasoei hitanoz zuzentzen zaizkien seme-alaben ehunekoak nabarmen egin du gora eta genero-erolek ere eragina izan arren, 12-18 urteko semeen % 27,6k egiten dio/zion hika aitari, aldiz 61

urtetik gorakoen artean inork ez (Bereziartua eta Muguruza, 2018).

Bereziartuaren eta Muguruzaren (2018) ustez, gurasoek seme-alabei, lagunei eta elkarri hika egiteko duten joerak eragina izan dezake seme-alaben tratamendu hautaketan.

### 2.5.2. Kalea

Aipatu den moduan, nahiz eta tradizioz beste modu batean izan, gaur egun (gazteen kasuan) etxean ikasi dutenak baino askoz gehiago dira hitanoa lagunekin ikasi dutenak, modu horizontal batean, alegia. Baita erabilerari dagokionez ere: gazteen artean gehiago dira lagunaren artean hitanoa erabiltzen dutenak, familiarrean hitz egiten dutenak baino (Azkue, 2009).

Lagunartean hitanoa ikasi ahal izateko ezinbestekoa da kalean hitanoa bizirik eta presente egotea eta hori hala da herri batzuetan baina ez besteetan. Hala denetan ere, soilik toka izan ohi da bizi-bizirik dagoena, ez ordea noka; hiltzear baitago herri gehienetan eta kalean oso gutxi entzuten da. Hitanoak (tokak gehienbat) etxezuloetik kalerako jauzia egin du, orain etxekeekin baino aiseago hitz egiten delako hika kaleko ezagun zein ezezagunekin (Alberdi-Zumeta, 2019). Lagunen artean hitanoaren erabilera simetrikoa egin ohi baldin bada ere, hitanoaren erabilpenean harreman asimetrikoak ere aurki daitezke; gertatzen baita solaskide batek hika egin (toka ala noka) eta besteak zuka erantzutea (Alberdi-Zumeta, 2019).

Belaunaldi berriek kalean hitanoa gehiago hitz egiten dutela esan daiteke, 2016an Usurbileko hitanoaren kale-erabileran jasotako datuen arabera. 1 taulan ikus ditzakegu datu horiek:

#### 1 Taula

*Hitanoaren kale-erabilera ehunekotan (%), adinaren arabera. (Soziolinguistika klusterra, 2017)*

---

Hitanoa	Zuka
---------	------

---

Haurrak	12,2	87,8
Gazteak	67,3	32,3
Helduak	26,1	73,9
Adinekoak	51,3	48,7

Ikerketan begirada zorrotz jarriz gero, ikus genezake adinekoen belaunalditik helduen belaunaldira beherakada bat izan dela baina hurrengo belaunaldikoek (gazteek), kalean hitano gehiago hitz egiten dutela, hika egiten duten adinekoen kopurua gaituz. Aldiz, haurrena guztietan baxuena da, baina hori izan liteke belaunaldi horretako gehienak beranduago murgilduko direlako tratamendu horretan.

### 2.5.3. Eskola

Eskola da oro har, haur eta gazteek hizkuntza formala erabiltzen duten esparru nagusia, nahiz eta eskolan ere esparru informalak bere lekua izan. Aurrez esan bezala, hizkuntza batek eredu formalean zein informalean komunikatzeko baliabideak izatea garrantzitsua da, non, erabiltzaileek edozeinekin, edozertarako eta edozein momentutan erabili dezakeen hizkuntza, beste hizkuntzerata jo behar izan gabe.

Eskolan, beraz, haurrei ahalik eta eredu gehien erakutsi beharko genizkieke, ahalik eta tratamendu gehien; hizkuntza testuinguru komunikatiboaren arabera erabiltzeko eta beraz, hizkera formalaz gain lagunartean erabiltzeko moduko hizkera informala (hitanoa) ere erabil dezaten (Barrios et al., 2008).

Maia eta Larrea (2008) ere hezkuntzan hizkuntzaren tratamendu desberdinak lantzearen alde ageri dira. Horien ustetan eskolak inguruko testuingurua aztertu beharko luke; ikasleak eskolaz gaituzko alor guztietan behar bezala komunikatzeko beharrezko baliabideak zein izango dituen aztertu, eta ondoren ikasleak behar izan ditzakeen ahalik eta hizkuntza erregistro gehienez hornitzea.

Ozaitak (2014) dioenez, gaur egun ikastetxeetan oso ordu gutxitan jorratzen da hitanoa eta metodologiarekiko ere desadostasun handia adierazten du. Horrez gain, gizarteak zein euskararen inguruko eragileek hitanoari garrantzi gutxi emateak

zuzeneko garrantzia izan dezakeela hezkuntzan hitanoak duen presentziarekin dio. Gainera, Ozaitak (2014) elkarrizketatutako Kike Amonarrizek dio oso denbora gutxi bideratzen zaiola, ez zaiola ematen garrantzi handirik eta erabilten den metodologia ere ez dela egokia. Amonarrizek proposatzen du hitanoa klase ordutan lantzea baina ahal bada modu informalak irudikatuz (antzerkitxoak hitanoa erabiliz...), eta hori aisialdian ere landuz (jolasorduetan, kirol esparruan, aisialdi taldeetan...).

Zuzeneko hitanoaren irakaskuntza alde batera utziz, zeharkako modu batean, hau da, ikasleei hitanoz zuzentzen diren irakasleak ere gutxi dira. Baina hala bada ere, generoa kontuan hartzen den aldagai bat izan ohi da. Adibidez irakasle gizonezkoek beraien ikasleei hika gehiago egin arren, nabarmen gutxiago egiten diete neskei (% 9) mutileri baino (% 57,5) (Bereziartua eta Muguruza, 2018). Zabalak (2021) dioenez, eremuaren arabera (gela barruan edo gelatik kanpo) ikasleei deberdin hitz egiten dieten irakasleak ere badaude; gela barruan euskara jasoan hitz egiten dietenak, baina jolas-orduan kutsu informal batekin (hika, alegia).

#### **2.5.4. Komunikabideak / Aisialdia**

Transmisioa neurri handi batean aisialdi espazio ezberdinetan burutzen dela (lagunak, telebista, familia, kirola, tabernak...) eta motibazioa, gaitasuna eta erabilera sustatzeko hauek leku paregabea direla dio Ozaitak (2014). Bere ikerketako elkarrizketatuen aburuz irratia, telebista, kirol esparrua edota aisialdia dira hitanoa ikasteko gune aproposak; hika *“promozionatu beharraz”* mintzo dira.

Ozaitak (2014) marrazki bizidunak ere oso aproposak ikusten ditu bide horretatik umeei hitanoa transmititzeko, bertan hitanoz hitz egiten entzunez gero, errepikapenaren bidez edo erreferente gisa hartuta haurrak hitanoaren munduan murgiltzen has daitezke.

Bereziartuak eta Muguruzak (2021) diote ETB1ek lagundu duela, neurri batean, hitano batua gizarteratzen, baina presentzia mugatua izan duela.

Komunikabideez gain, kirol eremua ere egokia da hitanoa landu eta gazteen artean zabaltzeko, gazteek ondo pasatzea helburu nagusia izanik bide batez hitanoa lantzea oso formula egokia litzateke (kirolen bat praktikatzean, udaleku edo ikastaroetan parte hartuz...). Baina entrenatzaile edo begirale orok hika hitz egiten jakin eta erabili beharko lukete noski, eta hori gaur egungo errealitatetik urruti dago



(Ozaita, 2014).

## **2.6. Hitanoaren funtzio soziala**

Arestian esan bezala hitanoa euskarazko tratamendu informala da, gertuko adiskideei zuzentzeko modua. Beitiak (2017) dioenez hitanoak euskaran betetzen dituen funtzioak hauek dira: kohesioa, konplizitate-zantzuak ematea eta umore-kode berezkoa izatea. Eta funtzio sozial bat betetzen du: solaskideen arteko nolabaiteko konfiantza, gertutasuna edo konplizitatea islatzea. Gure hizkuntza den euskarari aberastasuna eta funtzionaltasuna ematen dizkio hitanoak, tratamendu honi esker gerturatu edo urrundu egin daitekeelako bi pertsonen arteko harremana; kidesuna, errespetua, hostasuna, haserrea edo laguntasuna indartu daiteke hizkuntzaren bidez.

Aberastasuna eta funtzionaltasuna ematen dio, beraz, hitanoak euskarari; baina Alberdi-Zumetak (2019) gazteei eginiko elkarrizketen bidez ondorioztatu du hitanoaren erabiltzaileek ez dutela hitanoa erabiltzen hizkuntzaren aberastasun kulturala mantentzeko edo hitanoa ez galtzeko asmoarekin, baizik eta hitanoak beraien egunerokotasunean euskaraz modu informal eta kolokial batean aritzeko aukera eskaintzen dielako. Ozaitak (2014, 102. or.) Ibarako gazte bati eginiko elkarrizketatu bat ere iritzi berekoa da: “Hizkuntza kaja herramienta bat bezala da eta geroz eta herramienta gehio izan kaja barrun hobeto konponduko gea egunerokotasunen hizkuntza hori erabiliz”.

Beraz, euskarak modu kolokial eta informal batean komunikatu ahal izateko erremintarik ez badu (hitanoak eskaintzen diguna alegia) euskal hiztunak beste erreminta kaxa batera joko du behar duen horren bila (beste hizkuntza batera joko du) (Ozaita, 2014).

### **3. METODOLOGIA**

#### **3.1. Testuingurua**

##### **3.1.1. Alegia**

Alegia Gipuzkoako ekialdean kokatzen den udalerrria da, Tolosaldea eskualdearen barnean eta Gipuzkoako hiriburu den Donostiatik 30 kilometrora. Eskualdeko herri nagusia Tolosa izan arren inguruko herri txikientzako (Altzo, Orendain, Ikaztegieta, Baliarrain, Aldaba eta Bedaio) Alegiako herria zerbitzu gune nagusia da eta herri horietako biztanle askok bertan egiten dute bizitza (hezkuntza, osasuna, saltokiak, aisialdia...). Beraz, nahiz eta 1816 biztanle dituen herri txiki bat izan (Eustat, 2021) kontuan hartu behar da aipaturiko inguruko herri txikien biztanleen presentzia handia dela herrian. Hizkuntzari dagokionez herri euskalduna eta euskaraz bizi dena da Alegia, kaleko euskararen erabilera %82a dela kontuan hartuta (UEMA eta Soziolinguistika Klusterra, 2021).

##### **3.1.2. Alegiako Herri Eskola**

Alegiako Herri Eskola Alegia herriko ikastetxe bakarra da, herriaren erdian kokatua eta bere webgunean (<https://www.alegiakoeskola.eus/>) aurki genezakeen informazioa kontuan hartuz, egun, 232 ikasle ditu. Eraikin berean elkartzen dira Alegiako Herri Eskola (HH 2tik LH6ra) eta Aralar BHI insitutua (DHB 1etik DBH 4ra).

Eskola euskalduntzat du bere burua ikastetxeak eta elebitasuna bultzatzen du hezkuntza eleaniztun baten barruan, hizkuntza-ereduak hobetzen eta garatzen lagunduz. Horretarako, lehentasunezko tratua bermatzen du euskararentzat, bi hizkuntza ofizialen erabilera sozial desorekatua konpentsatzeko; ikasleek komunikazio-kompetentzia praktikoa eta eraginkorra izan dezaten euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta atzerriko lehen hizkuntzan ere maila ertain bat lor dezaten. D ereduko ikastetxea da, hau da, irakasgai guztiak euskaraz ematen dira gaztelania eta ingelesa izan ezik.

### **3.2. Helburua eta ikerketa-galderak**

Lanaren sarreran esan bezala, Gradu Amaierako Lan honen helburua Alegiako haur eta gazteek hitanoarekiko duten harremana, iritzia eta hitanorako jauziaren prozesua ezagutzea da; hau da, “mudantza” prozesu hori nolakoa den ezagutzea. Sakonago eta zehatzako azaltzeko, lan honek honako galdera hauei erantzuna aurkitzea du helburu:

- 1. ikerketa-galdera: Zer harreman dute Alegiako haurrek hitanoarekiko?

Galdera honekin jakin nahi da ea hitanoa entzuten duten, ea beraiei hika hitz egiten dieten eta ea hitanoa erabiltzen duten.

- 2. ikerketa-galdera: Alegiako haurrek zein iritzi eta uste dituzte hitanoarekiko?

Galdera honekin ikusi nahi da ea zein ezaugarriekin lotzen duten hitanoa, gustatzen al zaien hika hitz egitea, entzutea edo beraiei hitz egitea; ea ikastea edo gehiago hitz egitea gustatuko litzaiekeen edota zein etorkizun ikusten dieten hitanoari, bai orokorrean eta bai beren hizkuntza-ohituretan.

- 3. ikerketa-galdera: Zein ezaugarri ditu hitanorako jauziak Alegiako haurren kasuan?

Galdera honekin aztertu nahi da zein adinekin hasten den prozesua edo beraien bizitzako zein momentutan, hau da, zein testuinguru, eremu edota egoeratan. Horrez gain zein neurritan, norekin eta nola edo zertarako erabiltzen hasten diren ere jakin nahi da. Azkenik zergatia, jauzia emateko (edo ez emateko) egon daitezkeen hainbat arrazoi edo aldagaietatik zeinek duen pisu gehiago edo gutxiago.

### **3.3. Datuak biltzeko teknikak**

Hainbat bide erabili dira datuak biltzeko, denak beharrezkoak eta erabilgarriak helburua lortzeko. Teknika kuantitatiboak (oinarrizko galde-sortak edo inkestak) zein teknika kualitatiboak (behaketa, bakarkako elkarrizketak, talde-eztabaidak) erabili dira, aurrez azaldutako ikerketa galdera horiei ahalik eta erantzun egokiena eta mamitsuena aurkitzeko. Jarraian emango ditugu horietako bakoitzari buruzko xehetasunak.

### **3.3.1. Behaketa**

Teknika honen helburua gizakien portaerak inolako manipulaziorik gabe era sistematiko eta kontrolatuan begiratzea da, eta hortik ikerketarako garrantzitsua den informazioa eskuratzea. Horretarako ez da hitzezko, idatzizko edo ikus-entzunezko estimuluen (galdeketa, gidoia...) eragina jaso duten pertsonen erantzunetan oinarritzen ikerketa egiterakoan, baizik eta euren portaerak begiratzen dira, besterik gabe, inolako kontrolik edo manipulaziorik ezarri gabe (Juaristi, 2003).

Gure kasuan, Alegiako haur eta gazteen hitz egiteko joera naturala zein den aztertu da eta hika egiten duten subjektuak identifikatu dira, ondoren horiei elkarrizketak egin ahal izateko.

Lehenengo pausua izan da behaketa: 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleei eginiko behaketa. Ikerlaria Praktikum IIIa burutzen aritu denez Alegiako Herri Eskolan, jolas orduan edota korridoreetan behatu da, baita ikerlariari egokitutako ikasgela barruan ere.

Behaketaren bidez lortutako informazioa txantiloiei batera eraman da: noiz behatu den (data), nork, nori, nola (toka edo noka) eta non entzun den hika, zer esan den eta zer adierazteko erabili den hitanoa.

Egituratua izan da beraz behaketa, aipatutako datuak biltzeko txantiloiei bat sortu baita, non, fitxa batekin zehatz mehatz azaldu den hasieratik behatu beharrekoa, X baten bidez adieraziz edo apunte gutxi batzuk hartuz. Txantilloia sortzeko bi dokumentu hartu dira oinarritzat "Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa" (Altuna eta Basurto, 2013) eta "ARRUE programa. Ikasleen eskola-giroko hizkuntza erabileraren azterketa" (Martinez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009). 1. eranskinean dago ikusgarri erabili den txantilloia.

### **3.3.2. Galdetegia**

Inkesta galdeketa baten bitartez informazioa jasotzeko teknika da, non informazioa gizakiei galdetuz lortzen dugun. Alde batetik, kanpo portaera behatuz ezin dugulako gizakiek euren portaerei ematen dieten sakoneko esanahia ezagutu, eta, ondorioz, esanahi hori behar bezala eta bere sakontasunean ezagutzeko. Beste aldetik, talde bateko iritzi, portaera, jarrera edo joeren zenbaketa adierazgarria edukitzeko (Juaristi, 2003).

Galdetegia 3-6. maila bitarteko ikasleei pasa zaie, jakiteko ea zenbatak dakiten zer den hika, zenbatak entzuten duten, zenbati egiten dieten, zenbatak egiten duten eta zer iritzi edo uste dituzten hitanoarekiko. Galdetegi honen erantzunak, behaketarekin batera oso erabilgarriak izan dira ondoren egindako bakarkako elkarrizketetarako eta tertulietarako.

Galdetegia diseinatzeko Ainara Elortzak (2021) GRALean erabilitakoa oinarritzat harturik ikerketa honetarako galdetegia sortu da euskarri digitalean ("Google inprimakiak" aplikazioarekin). Datuak biltzeko, ikasleen irakasleekin egun eta ordu bat adostu ondoren, ikertzailea ikasgeletatik pasa da, ikasleei galdetegiaren nondik norakoak azaldu eta hauek ordenagailuz bakoitzak bere galdetegia bete bitartean zalantzarik edukiz gero lagundu ahal izateko.

Ikasleei aurkeztu zaien galdetegian galdera itxiak zein irekiak egon dira. 25 item ditu guztira galdetegiak, horietako 5 datu orokorrak biltzeko asmoz, 2 hizkuntza ohiturak ezagutzeko asmoz eta 18 hitanoaren ingurukoak. 20 item galdera itxi motakoak izan dira eta gainontzeko 5 itemak galdera irekiak. Galdera itxien barnean erantzun posible bakarra eman daitezkeen itemak 17 dira eta erantzun posible bat baino gehiago dituzten itemak, 3. Galdera itxien barruan ere 6 item dira bai/ez erantzun posiblea dutenak, gainontzekoak 14. Galdetegia 2. eranskinean dago ikusgai.

### **3.3.3. Bakarkako elkarrizketak**

Datuak biltzeko beste teknika bat elkarrizketak izan dira, bakarkako elkarrizketak. Sakoneko elkarrizketa informazioa lortu asmoz elkarrizketatu baten eta elkarrizketagile baten artean egiten den elkarrizketa profesionala da. Sakoneko elkarrizketaren bidez elkarrizketatuarentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu daiteke (Juaristi, 2003).

Behin behaketaren bitartez informazio nahikoa jaso edukita eta ikasleei pasatako inkesten erantzunak aztertu ondoren, elkarrizketetara igaro da. Elkarrizketak egiteko, behaketetan eta galdetegian hitanoarekiko hurbiltasun gehien azaldu duten ikasleeak aukeratu dira.

Elkarrizketa fokatuak (hitanoa sakonean aztertu delako) eta ez zuzenduak

(nahiz eta gidoi bat eduki elkarrizketatuak hartzen duen norabidea kontuan hartu delako) izan dira (Juaristi, 2003). Ikerketa honen kasuan, bakarko elkarrizketen helburua ikasle potentzialengandik behaketarekin edo galdegi motz batetik lortutakoa baino informazio gehiago lortzea izan da.

Bakarkako elkarrizketetarako 3. mailako ikasle 1 eta 4. mailako 4 ikasle hautatu dira. Sakoneko elkarrizketa hauek ohiko ikasgela batean izan dira, bakarka. Konfiantzazko giro bat sortzen saiatu da; elkarrizketatua izan den pertsona eta lan honetako ikertzailea soilik egon arren ikasgelan, Juaristiren (2003) gomendioak jarraituz, elkarrizketa mota honek elkarrizketagileak elkarrizketatuari beharrezko garrantzi eta dedikazioa eskaintzeaz gain elkarrizketatuarekin etxekotasun edota konfiantzazko giro bat sortzeak izugarriko garrantzia du, oraindik gehiago umeen kasuan.

Gidoi bat erabili da elkarrizketak modu natural baina aldi berean kontrolatu batean aurrera eramateko, nahiz eta aldatu/moldatu/gehitu egin izan diren galderak edo landutako gaiak elkarrizketaren norabidea kontuan hartuta.

#### **3.3.4. Talde-eztabaidak**

5. zein 6. mailakoengandik informazioa jasotzeko beste teknika bat erabili da: talde- eztabaidak.

Eztabaida taldea informazioa lortzeko moderatzailearen eta taldekide batzuen artean egiten den eztabaida da; zehazki gai baten arlo garrantzitsuenak ezagutu, gai horren inguruan taldekideen artean egon daitezkeen ikuspuntuak ikertu eta taldekideentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu asmoz (Juaristi, 2003).

Ikerketa honetan, behaketa zein galdetegia motz geratu zaien ikasle horiei gaiaren inguruan gehiago hitz egiteko aukera eskaintzeko erabili da, horrela ikerketan lan honetarako lagungarri izan den informazio gehiago lortuz.

5. eta 6. mailako 11 ikasle hautatu dira, 4 neskek eta 7 mutilak. Behaketetatik eta galdetegitik lortutako informazioa kontuan hartu da eta aukeratuak izan diren ikasleekin 2 talde-eztabaida sortu dira, maila bakoitzeko bat. Ikastetxeko ikasgela batean burutu dira talde-eztabaida eta 40 minutu inguruko iraupena izan dute. Moderatzaile lanetan ikerketa honen egilea bera aritu da aurrez sorturiko gidoi batez

baliaturik, aztertu beharreko gaiak zehaztuak edukitzeko eta eztabaidan zehar ez galtzeko.

Gidoian txertatu dira sarrera bat, galderak edo eztabaidatu beharreko gaiak, gai bakoitzarekin zenbat denbora igarotzea aurreikusten den, gaian modu natural batean murgiltzeko lagungarriak, eta amaiera bat.

### 3.4. Parte hartzaileak

Alegiako 8-11 urte bitarteko 91 ikasle izan dira ikerketan parte hartu dutenak. Datuak biltzeko tresna bakoitza zenbat ikaslerekin erabili den erakusten du 2.taulak

## 2 Taula

*Tresna bakoitzarekin datuak biltzeko parte hartu duten ikasle kopurua, mailaka eta generoka.*

	LH3		LH4		LH5		LH6	
	M	N	M	N	M	N	M	N
BEHAKETA	7	7	18	12	9	10	12	16
GALDETEGIA	7	7	18	12	9	10	12	16
BAKARKAKO								
ELKARRIZKETAK		1	4	1				
TALDE-EZTABAIDAK					4	2	3	2

Emitzen atalean parte-hartzaileen ekarpenak erakutsiko dira eta anonimotasuna bermatzeko kodifikatu egin dira ikasleen izenak. Hona hemen kodeak ulertu ahal izateko argibideak:

- Galdetegiko galdera irekiak: GA eta ikasle bakoitzari ezarri zaion kodea + generoa (M= mutila eta N= Neska). Abididez GA01M: Galdetegiko 01 gaztea, mutila.
- Bakarkako elkarrizketak: BE eta ondoren elkarrizketa bakoitzari ezarritako kodea eta elkarrizketatuaren generoa (M= mutila eta N=

neska). Adibidez BE01M: 1. bakarkako elkarrizketa, elkarrizketatu mutila.

- Talde eztabaidak: TE-01 (5.maila) edo TE-02 (6.maila), izan den talde-eztabaidaren arabera. Jarraian parte hartzaile bakoitzaren izena adierazi da, izenak aldatu diren arren, generoa mantenduz.

### **3.5. Datuak aztertzeo prozesua**

Prozesuaren lehenengo pausoa behaketa izan da, eta jarraian ikasleei galdetegi labur bat egin zitzaien, behaketako portaera edo hizkera-ohiturei erantzun bat aurkitzeko, eta hitanoarekiko ezagutza, erabilpena eta pentsamenduaren inguruan informazio gehiago lortzeko.

Behaketaren txantilloiean hartutako oharrak irakurri eta edukiaren analisia egin da. Modu horretara ikusi da nork-nori egiten dion gehiago, zein egoera eta momentutan erabiltzen den edota zer adierazi nahi izateko jotzen duten hitanora.

Galdetegian bi modu ezberdin erabili dira datuak aztertzeo. Galdera itxien kasuan maiztasunak eta ehunekoak kalkulatu dira eta galdera irekien kasuan edukiaren analisia egin da, galderen erantzunak irakurri eta ondoren kategorizatu egin dira, multzokatu.

Bi bide horietatik lortutako informazioa aztertuta, erabaki da zein ikaslerengandik lortu zitekeen informazio gehiago eta mamitsuagoa; horren arabera bakarkako elkarrizketak eta talde-eztabaidak burutu dira. Bi kasuetan ahots-grabagailua erabili da, beraz, transkribapena egin ondoren edukiaren analisia egin da eta elkarrizketa zein talde-eztabaidetan bildutako informazioa kategorizatu egin da.



## **4. IKERKETA EMAITZAK**

Atal honetan behaketetatik, galdetegitik, bakarkako elkarrizketetatik eta talde eztabaidetatik lortutako informazioa biltzen da, ikerketa galdera bakoitzari erantzun osatuena emateko. Horretarako ikerketa galdera bakoitza azpi ataletan banatu da, kategoria desberdinetan antolatuz informazioa.

### **4.1. 1. ikerketa-galdera: Zer harreman dute Alegiako haurrek hitanoarekiko?**

Ikerketa galdera honi erantzuna emateko behaketetan, galdetegian eta elkarrizketetan zein talde-eztabaidetan lortutako informazioa hartu da kontuan. Honakoak izan dira aztergai hartu diren azpi atalak: hitanoa ezagutzen al duten, nolako ingurunea duten hitanoarekiko, beraiei hitanoz egiten dieten eta ea beraiek egiten duten hitanoz.

#### **4.1.1. Ezagutza**

Hitanoaren inguruko ezagutza-maila desberdina da haur guztien artean, nahiz eta %83,1ek hitanoa zer den badakiela esan. Gainera, galdetegian hitano eta zutanoaren artean bereizteko 12 esaldiko item bat zuten eta esaldien %75 edo gehiago ongi egin zituztenak %61,54 izan ziren.

Behaketaren bitartez batzuek hitanoaren ezagutza sakona ez dutela ikusi da. Nahiz eta erabiltzen entzun den gehienetan ongi erabili den, akatsak ere entzun baitira; gehienbat toka eta nokaren erabilpen zuzenarekin lotuak. Adibidez, mutil batek neska bati “hartzak baloia” esatean edota neska batek beste bati “nahi al dek” esatean.

Banakako elkarrizketetarako zein talde eztabaidetarako, hitanoarekiko harreman eta ezagutza gehien zuten ikasleak aukeratu arren, ikusi da harreman hori tokarekiko dela orokorrean. Nahiz eta oro har noka tokarengandik desberdintzeko gai izan eta jakin hitanoaren barruan desberdin egin behar dela igorlea mutila edo neska izan, ezagutza maila baxuago bat dutela ikusten baita. Hori erakusten dute elkarrizketatutako ikasle baten hitzek: “diferentea da mutillei ta neskai itte zaiena, baño

eztakit esplikatzen. Neskai itte zaiena eztakit nola dan, mutilena ikasiet baño neskana hainbeste ez” [BE-01M]. Hitanozko elkarrizketa baten bideoa (<https://labur.eus/7tEDI>) erakutsi ondoren eta ea hitanoz nori egiten zitzaion galdetzean honako eztabaida sortu zen TE-02an:

Jon: Neskai ustet

Aitor: Baño neskai etzaie hika hitzeiten, beste gauz bat hitzeite zaie.

Janire: Zuka o.

Aitor: Ez, neskai hika hitzein beharren beste zeoze baño zuka eztana.

Hala ere, batzuk badute nokarekiko ezagutza, jarraian erakutsiko ditugun esaldietan ikus dezakegun bezala: “Amak esantziten neskai esatezaiela  $k$  kendu ta  $n$ , ta mutillei  $k$ -kin” [BE-05M] edo “Neska da bestea zeba *aizan* ta holakok esateizkio” [BE-04M].

Noka ez jakite horren edo hain ondo ez jakite horren arrazoi nagusia noka toka bezainbeste ez entzutea dela diote: “eske mutillena gehio entzutet” [BE-05M]. Hala ere gehiago ulertzen ari direla pixkanaka adierazten dute “neskai ittekoa ya pixkat ulertzen ai naiz” [BE-03M].


Orokorrean hitanoarekiko duten ezagutza hori kalean edo etxean (edo bietan) entzunda lortu dutela diote denek “etxen entzunda nik” [BE-04M] edota “bueno nik etxen ez, ze nere etxen eztue hitzeiten hika. Nik kalen” [TE-02 AITOR]. Partaide guztiek adierazi dute beraien hitanoarekiko ezagutza eskolatik behintzat ez datorrela eta etxetik edo kaletik ez bada ezin dela hitanoarekiko ezagutzarik lortu, gaur egungo egoera kontuan izanik: “Bestek eztakie eskolatik ezin duelako ikasi, eztuelako eakusten” [BE-01M].

#### **4.1.2. Hitano *input*-a**

Beren inguruan hitanoa entzuten al duten galdetu diegunean, eremutik eremura datuak aldatu egiten direla ikus dezakegu 1 grafikoa:

## 1 Grafikoa

### Hitanoaren presentzia eremuka (ehunekotan)



1 Grafikoa ikusten dugunez soilik haurren % 11,1ek ez duela hitanoa entzuten dio, beraz, gainontzekoak nonbait behintzat entzuten dutela ikus dezakegu, gehien kalean eta jarraian, familian.

Bakarkako elkarrizketetan ere datu hauekin bat datozen komentarioak azaldu dira hitanoa non entzuten duten galdetzean: “familikoi ta kalen ebai batzui” eta “telebistan hainbeste ez” dio BE-01M-k. Edota BE-03M-k dio “eskolan tarteka entzutea baño oso gutxi”. Generoari eta adinari dagokionez honakoa diote: “mmm... 18 urtetik aurrekok. Gehienbat mutillei baño neskan bat ebai” [BE-03M]. Ikerketan parte hartu duten zaharrenek, aldiz, generoaren aldetik pentsamendu berdina eduki arren, gertuagotik ikusten dute hitanoa, beraien adinekoak ere zakuan sartzen baitituzte: “gure edadekok bai ta zarragok dbh-tik aurrea asko, mutillek e, mutillek. Baño gu baño gaztekok gutxi” [TE-02 MIKEL].

#### 4.1.3. Beraiei hika

Galdetegitik lortutako informazioari erreparatuz %65,6k norbaitek egiten diola hika esaten du eta %34,4k ezetz. Ezezkoa dioten horien %32,26 dira mutilak eta %67,75 neskek. Beraz, generoa ezaugarri erabakigarria da besteak gazteei hika zuzentzerako garaian. Behaketaren bitartez ere berdina ondorioztatu da, hika entzun

diren elkarrizketa gehienak mutilek mutilei eginikoak izan baitira.


Banakako elkarrizketetan zein talde-eztabaidetan hika nor ekiten dieten galdetzean gehienek familiako kideren bat aipatu dute, jarraian lagunak eta ondoren irakasle edo entrenatzaileak. “Nere famili guztik hikaz hitzeiteit” [BE-04M], “Nei Intxurrekok ta pelotakok iteiate, ta geo batzuk Alegikok baita kalen” [TE-02 AITOR] bezalako erantzunak eman dituzte.

#### 4.1.4. Beraiek erabili

Galdetegiaren bidez hitanoa erabiltzen duten galdetzean, hauek izan dira erantzunak:

### 2 Grafikoa

*Gazteen hitanoaren erabilpena (ehunekotan)*



2 Grafikoan ikusenezake “inoiz ez” eta “gutzitan” erantzun dutela ia gehienek baina, hala ere, gazteen %15,6k askotan erabiltzen duela adierazi du galdetegian. Nahiz eta galdetegian genero aldetik antzeko emaitzak eskuratu, behaketan entzun diren elkarrizketa gehienak mutilek mutilei eginikoak izan dira, hots, mutilek erabiltzen dutela gehiago hitanoa.

Norekin erabiltzen duten galdetzean “lagunekin” eta “famiakiin” erantzunak nagusitu dira neurri berean; nahiz eta beraiei lagunek baino gehiago famiakiokoak zuzentzen zaizkien. %19,7k esan du irakaslea/entrenatzailea zuzentzen zaiela hitanoz, baina beraiek hauei egiten dietenak soilik %4 dira. Beraz, askok, nahiz eta beraiei

hitanoz hitz egin, beste pertsona adinez zaharragoa bada, beraiek ez diete hika egiten. Horren arrazoitzat adin nagusiagokoei hika hitz egitea errespetu falta bat dela esan dietela iradoki dute, nahiz eta denak ez egon ados ideia horrekin eta batzuk adin zaharragokoei ere hika zuzendu. Hori ikus daiteke ondorengo adierazpenetan: “Attei e ezin zaiola in esan dit. Beti zure arrebai, anaiei edo adin txikigokoi edo” [BE-04M] edo talde eztabaidan [TE-01] sorturiko elkarrizketan:

Markel: Baño esateue zarragoi itea errespetu falta dala.

Iker: Bai, hoi esateue. Abidiez zuk hitzeitea Endikai (ikertzailea), zarragoa dalako.

Amaia: Ya, ta?

Laia: Ta zarragok al digue guri?

Iker: Bai.

Laia: Eso no es justo, eske

Iker: Ba hola da.

Ander: Ba nik zarrago batekin hitzeitet, dbh-ko batekin

Markel: Nik ebai, nere amakin

Hala ere, “nik atekin bai baño attonakin ez” dio TE-01ko XUBANEK eta beste talde eztabaidan ere [TE-02] nahiz eta bestea zaharragoa izan, posible dutela bestearekin hika hitz egitea diote, kontuan hartuta bestea zenbat zaharragoa den edo nola hitz egiten duzun:

Aitor: Ez, bueno segun ze zarragoi. Nik txulok dienai adibidez DBH-koi ta batxillerrekoi ta hitzeiteiet nahideten bezela.

Ikertzailea: Bale baño zuen gurason adiñekoi ta hola?

Aitor: Ez, hoi ilegala da.

Mikel: Errespetu falta bat da

Irati: Bueno baño segun nola zoazen. Hitzeitebazu hola de txulito gurasoi igual ostia bat emateizu. Baño jute bazea normal txulito gabe iual ezta eze pasatzen.

Hitanoa norekin erabiltzen duten galdetzean erantzun asko izan dira genero aldetik neutroak: “familia edo lagunak”; baina generoa identifikatu denen artean %84,2 izan dira gizonezko genero bat aipatu dutenak eta soilik %15,8 neska generoko bat aipatu dutenak. Hori zuzenki lotuta dago nokarenganako duten ezagutza faltarekin “nik ezin diot neska bati hitzein hika, eztakitelako neskan hikan hizkuntza hitzeiten” [TE-02 MIKEL]. Neskei egiten badiete ere toka izaten da askotan, behaketetan ikusi den moduan, eta talde eztabaidan ikasle batek esandakoa kontuan hartuta: “nei Ainarak

(entrenatzailea) zuzendu iteit askotan hikaz neskan eran nola esatean” [TE-02 SALMA].

Bi perfil desberdin identifikatu dira hitanoaren erabilpena noiz izaten denaren arabera: adin txikiagoa dutenek lagunekin erabiltzen badute gehienek brometarako eta momentu puntualetan izaten dela aitortzen dute: “bromak iteko eo pozik gaudenen erabiltze deu” [BE-04M], “Batzutan launek saiatze gea eun oso bat iten denatako baño azkenen ezteu lortzen. Eske gero aztu ite gea ta zuka ite deu berriz” [BE-04M]. Txanponaren beste aldean daude zaharrenak, zeintzuk segurtasun gehiagorekin dioten hitanoaren erabilpen handiago bat dutela eta oro har egunerokotasunean lagunekin denetarako erabiltzen dutela “kalen gaudenen launekin beti” [TE-02 JON]. Hori bai, kontuan hartuta zein laguni, non dauden eta nor dagoen aurrean.

Lagunekin brometarako erabiltzen dutenak edota denetarako erabiltzen dutenak, guztiek, kontuan hartzen dute ingurunea; ikasgela barruan egon edo ez, alegia. Behaketetan ere ikusi da jolas-orduan gehiago egiten dutela hika. Gainera ikasleek beraiek ere adierazi dute hori: “klase barrun hitzeite deu baño gutxi, oso oso gutxi” [BE-03M] edota “Eskola barrun oso gutxi, jangelan eo pation” [TE-02 AITOR].

Batzuk ikasgelan hitanoz hitz egitea ongi ikusten ez duten arren, “Nere ustez ezta posible hikaz hitzeitea klasen. Pixkat errespetu falta da, komo de katxondeo bezela” [TE-02 SALMA] beste batzuk ez dute gaizki ikusten hitanoz egitea ikasgelan: “Klasen bai, al da hitzein. Irakasle bat euki genun ordezkoa Alegikoa. Horrek denai ittezien hikaz ta etzan eze pasatzen” [TE-01 IKER].

Badago ere aurrez aurre hainbeste ez hitz egin eta momentu zehatz batzutarako izan arren, batzuekin pantaila baten atzetik hitz egiteko ohitura duenik: “Endika, ni ibiltze naiz bideojokutan laun batekin ta gure hitzeiteko era hikaz da hor”. Klean pertsona horrekin ea nola hitz egiten duen galdetzean honakoa erantzuten du: “kalen enaiz hainbeste eoten ze zarragoa da baño kalen batzutan baita hikaz baño askoz gutxigotan, grazie emateko” [TE-01 ANDER].

Horrez gain, batzuk kontuan hartzen dute beste pertsona, besteak hitanoz jakitea edo behintzat ulertzea. Esaterako, honako erantzunak jaso ditugu hika norekin hitz egiten duten galdetzean: “ba eztakit, hikaz ebai hitzeiten dakin jendekin” [BE-03M] edo “ez balinbaki baño iruitze zaitena ulertukouela hikaz esatebat bai ingoiet baño bestela ez” [TE-01 XUBAN]. Horrekin batera, batzuk diote beste pertsonarenganako

konfiantza maila altua edukitzea dela beste baldintzetako bat, talde-eztabaidan parte hartu zuen ikasle batek adierazten duen moduan: “Nik laun hobenakin bezela. Osa nik hitzeitet hika kon los ke konfio” [TE-02 Mikel].

Hika hitz egitean nor dagoen aurrean ere kontuan hartzen duela adierazi du ikasle batek eta gainontzekoek hori berretsi dute; lotsa arrazoitzat jarriz: “Nik lotsa daket Endikan (ikertzailea) aurren hika hitzeitea” [TE-02 AITOR].

Beraz, hitanoarekiko harreman bat badela ikusi da, gehienek hika eremu desberdinetan entzuten dutela ikusi baita eta oro har ezagutza badutela, nahiz eta tokarekiko ezagutza gailendu. Beraiei hitanoz ere egiten dietela aitortu dute eta batzuk, beraiek ere egiten dutela esan dute, nahiz eta gehiengoak momentu zehatz batzuetan soilik izan. Hitanoz egiteko edo ez egiteko faktore asko hartzen dituzte kontuan: ezagutza, beste pertsonak ere hitanoa jakitea edo behintzat ulertzea, ingurunea, nor dagoen aurrean, beste pertsonarekiko konfiantza, beste pertsonaren adina, generoa eta ohitura. Horrez gain hitanoarekiko duten iritzia eta pentsamendua ere beste faktore erabakigarriak dira eta hori nolakoa den hurrengo puntuan azalduko da.

#### **4.2. 2. ikerketa-galdera: Alegiako hurrek zein iritzi eta uste dituzte hitanoarekiko?**


Ikerketa galdera honi erantzuna aurkitzeko galdetegia, elkarrizketak eta talde-eztabaidak hartu dira kontuan eta bi azpi ataletan banatu da: batetik, hitanoa zein ezaugarriekin lotzen duten; bestetik, ea gustoko duten hika entzutea, beraiei egitea, beraiek egitea, eskolan ikastea eta zein etorkizun ikusten dieten hitanoari, bai orokorrean eta bai beren hizkuntza-ohituretan.

##### **4.2.1. Hitanoarekin erlazionatzen dituzten ezaugarriak eta elementuak**

Galdetegian galdetu zitzairen norbait hika hitz egiten entzuten zutenean zer zetorkien burura eta honakoak izan ziren erantzunak:

### 3 Grafikoa

*Hitanoarekin erlazionatzen dituzten elementuak (ehunekotan)*



Ikusi daitekeenez, “Lagunak” izan da gehien aukeratu den elementua, eta familia arlokoak ere (“Aiton-amonak”, “Familia” eta “Gurasoak”) askok aukeratu dituzte. Konnotazio ezkorrak dauzkatenak dira (itsusia, inbidia eta zakarra) parte-hartzaile gutxienek aukeratu dituztenak.

Elkarrizketetan eta talde eztabaidetan ere antzeko emaitzak lortu dira, nahiz eta familia eta zehazki gurasoak gehiago aipatu diren lagunak eta aiton-amonak baino. Brometarako edo barregurea eragiteko hizkera ikusten dutela batzuk aitortu dute “grazie iteko” baina beste batzuk ez daude ados ideia horrekin: “Aber zuk itezu grazie emateko, baño igual beste batek ez. Beste batek komunikatzeko erabiltzeu” [TE-01 ANDER ETA IKER].

Euskaldun jatorraren irudiarekin erlazionatzen du gehiengoak hitanoa, ondorengo adierazpenetan irakur dezakegunez: “Ombre euskaldunagoa” [BE-01M]; “euskaldun peto-petoa” [TE-01 XUBAN]. Baita baserri edo herri txikietako biztanleekin ere “baserritarrak” [TE-02 SALMA]. Talde-eztabaidan [TE-01] ere antzerako ideiak aipatu dira:

Xuban: Horrek etzun hitzeiten kalekoa zalako, Beasaingoa, kalekume hutse.

Ikertzailea: Ordun kaleko jendek eztu hitzeiten hika?



Xuban: Bai batzuk, Alegikok adibidez bai. Baño Donostia jun ta aber zenek hitzeiteizun hikaz.

Iker: Aber segun ze herri dan. Herri txiki bat bada jende askok hitzeingou hikaz, baño Beasain bezelako herri bat, hola handie ba ez.

Horrez gain, batzuk lehengo hizkerarekin erlazionatu dute: “Emateu komo ke ohitura zar bat bezela dala” [BE-06N] edo “Hika nik behintzat gehio ikustet leno erabiltze zan hizkera bezela” [BE-01M]. Ondo pasatzeko edo pozik zaudenean erabiltzeko hizkera dela diote denek: “ba gaudenen hola launarten, pation, ta ondo ai geanen pasatzen” [TE-03]; “pozik zaudenen ta hola” [BE-02N]; baina hori ez ezik denetarako dela ere adierazi dute: “Egunero, gauz guztitako” [TE-02 AITOR]. 6. mailako talde-eztabaidan hitanoaren alde onak zein diren galdetzean honakoak esan zituzten:

Aitor: Ba hizkera diferente esango deu euskaldunegoa dalako, gehio gustatze zait. Hizkera librea da. Euskera gehio adierazteu.

Jon: Launartekoa

Mikel: Hoi da, launartekoa. Konfiantza gehio emateu.

Hitanoak dituen alde txarren inguruan galdetzean, aldiz, gehiago pentsatu behar izan arren, honakoa esan dute: “Hikaz, haserretzeanen jendea emateula txulo puta bat dala” [TE-02 AITOR] edo “Diferentea dala neska ta mutillentzat” [TE-01 IKER]. Hala ere, elkarrizketetan eta talde-eztabaidetan parte hartu duten guztiek esan dute polita iruditzen zaiela hitanoa eta orokorrean ez dute ezaugarri negatiboekin erlazionatu.

#### **4.2.2. Hitanoarekiko zaletasuna**

Hitanoarekin erlazionatuta, zenbait galdera zehatz egin zaizkie: ea beraiei hitanoz zuzentzea gustatzen zaien edo gehiagotan zuzentzea gustatuko litzaiekeen, beraiek hika egitea gustatzen zaien edo gehiago egitea gustatuko litzaiekeen eta eskolan hitanoa ikastea gustatuko litzaiekeen.

Galdetegian ea gustuko zuten beraiei hika egitea galdetzean %13,5ek soilik erantzun zuen ezetz; gainontzekoek baietz (%48,3) edo ez zekiela (%38,2) erantzun dute. Gainera, nahiz eta batzuk ez hitz egin eta ez gustatu hitz egitea, gustuko dutela

beraiei hika egitea esan dute, nahiz eta batzuk bestea kontuan hartzen duten “Segun zeñek hitzeiteiten hikaz baño ondo iruitze zait” [BE-01M].

Aldiz, hika hitz egitea gustatzen zaien galdetzean ezezkoaren ehunekoa 35,2ra igo da eta baiezkoa erantzun duena %64,8 izan da. Bakarkako elkarrizketetan ere hori argi ikusi da, denek esan baitute gustatzen zaiela beraiei hika egitea baina batzuk esan dute beraiek hika egitea ezetz: “Ba gustatuko zitzaiten lagunek nei itea baño nik beaiei ez” [BE-06N] edo “Gelako askoi nik uste igualtzaiela beaiei hikaz in o ez, baño batzuk eztue in nahi hikaz” [BE-01M].

Beraiei hitz egitea gustatzen zaiela edo berdin zaiela diote arrazoi nagusi batengatik: “Politte iruitze zaitelako” [BE-06N]. Ez zaie gustatzen hitz egitea aldiz ezagutzarik ez dutelako eta ondorioz besteek barre egiten dietelako: “Oso gaizki hitzeitelako hikaz ta pixkat lotsa emateitelako” [BE-06N] edo “Zeba batzutan esateten zeoze hikaz parra ittezue” [TE-02 SALMA].

Ezagutza falta bat dutenez ea eskolan hitanoa lantzea gustatuko litzaieken galdetu zaie eta %63,3k baietz erantzun du, %36,7k, aldiz, ezetz. Hitanoa eskolan lantzea zertarako gustatuko litzaiekeen galdetu ondoren gehienek “Nik ikasteko” erantzuna aukeratu zuten, jarraian “Praktikatzeko”, ondoren “Hikaz hitz egitera ohitzeko” eta azkenik “Nire lagunek ikasteko”. TE01-eko Anderrek honakoa esan zuen horren harira: “bueno kanpotarrak ikasteko ta guk ebai gehio ikasteko, hobetzeko ta praktikatzeko”.

Bakarko elkarrizketetan eta talde-eztabaidetan ia gehienek esan dute gustatuko litzaiekeela hitanoa eskolan lantzea eta proposamen desberdinak bota dituzte: “ba jartzeko asignatura bat hikana dana” [TE-02 MIKEL], “Eneko (hikaz egiten zien irakasle ordezkoa) ekarri” [TE-02 AITOR] edo “Nik nahiko nuke eskursio bat hika hitzeiteuen eskola batea. Barnetegi batea inglesekoa bezela baño hikana” [TE-01 XUBAN ETA IKER]. Hala ere kontrako jarrera duenik ere bada, eskolan hitanoa lantzea ez litzaiokeela gustatuko esan baitu elkarrizketatu batek.

Etorkizunari begira galdetegian galdetu zitzaaien ea handiago izatean hika hitz egingo zutela iruditzen al zitzaaien eta %48,4k baietz erantzun zuen, %51,6k ezetz. Azpimarratu beharra dago baiezkoa erantzun dutenen %68,18 mutilak direla eta %31,82 neskek. Ea hika norekin egingo duten galdetzean gehiengoak “Lagunekin” esan du, nahiz eta “Familiarekin” ere askok adierazi duten. Gutxi batzuk izan diren

arren, “Denekin” edo “Edozeinekin” ere erantzun dute batzuk. Bakarko elkarrizketetan eta talde eztabaidetan, aldiz, honako erantzunak ere eman dituzte: “Lagun guztikin ez, lagun hobenakin bezela” [BE-01M], “Normalen mutilekin, zeba neskak nere gertukok behintzat eztue hitzeitan” [BE-03M].

Laburbilduz, hitanoa ezaugarri positiboekin lotzen dute Alegiako gazteek eta beraiei hika egitea gustatzen zaie. Beraiek hika egitea, aldiz, gutxiagori gustatzen zaio baina hala ere ia 3tik 2k gustatzen zaiola erantzun du. Eskolan hitanoa lantzea ere bi herenei gustatuko litzaike, gehienei beraiek ikasteko edo hobeto ikasteko aukera edukitzeko. Etorkizunari begira erdiak uste du hitz egingo duela lagunekin eta familiarekin baina beste erdiak ez. Generoaren arabera bereizita, baiezkoa erantzun duten 3tik 2 mutilak dira eta bakarra neska. Beraien ustez hika hitz egiteko jauzi hori ematearen edo ez ematearen zergatiak zein diren ere galdetu zaie baina hori hurrengo ikerketa galderaren barnean azalduko da.

#### **4.3. 3. ikerketa-galdera: Zein ezaugarri ditu hitanorako jauziak Alegiako haurren kasuan?**

Hitanoarekin harremana badutela ikusi da eta hitz egiten dutela, baina gehiengoak oso gutxitan eta momentu zehatz batzuetan soilik. Ikerketa galdera honetan bi alderdi aztertu dira: batetik, hitanorako jauziari buruzko nondik norakoak; hau da, hitanoa beraien bizitzan presentzia handiagoa izaten noiz, non, norekin eta nola hasten den. Bestetik, zergatik ematen duten edo ez duten jauzi hori. Ikerketa galdera honi erantzuna aurkitzeko behaketa, galdetegia, elkarrizketak eta talde-eztabaidak hartu dira kontuan.

##### **4.3.1. Jauziaren lehen pausua noiz, non, norekin eta nola?**

Ikerketa galdera honetan ez da ikertu hitanoarekiko lehen harremana, baizik eta egunerokotasunean hitanoa erabiltzen hasteko lehen pausua. Behaketetan ikusi da hitanoa erabiltzen dutenen artean txikienek momentu puntualetan erabiltzen dutela eta zaharrenek gehiagotan erabiltzen dutela. Elkarrizketetan eta talde eztabaidetan ere hori berretsi da; gazteenek “nik, erabiltzet hola batzutan hika” [BE-03M] esan baitute eta zaharrenek (hori bai, mutilek) “kalen garenen beti” [TE-02 JON]. Gainera eskolaz kanpo eta lagunekin eman dutela jauzia adierazi dute, nahiz eta gehienek ezagutza

etxean jaso: “Launekin, egunero gauz guztitako. Eskola barrun oso gutxi, jangelan eopation” [TE-02 AITOR]. Horren arrazoia eskolaren baitan baino gehiago irakaslearen baitan dagoela esan dute, irakasle batzuekin egonda beraien artean erabiliko luketela esan baitute: “Julen (hika egiten zien irakasle ordezkoa) eongo bazan bai” [TE-02 JON] baina beste batzuk ez omen diete beraien artean ere erabiltzen uzten “Edurnek esateigu ez hitzeiteko” [TE-02 AITOR]. Hala ere etxe barruan jauzi hori emanda dagoenik ere badago, baina ez etxetik kanpo: “Launekin nik erabiltzet hola, batzutan hika. Attekin normal baita”. [BE-03M]. Jauzia dagoeneko eman duela esan duen gutxiengo horri jauzi hori nola eman duen galdetuta honakoa erantzun du: “Ba egun batetik bestea ez, ikasten pixkat ta ya bakizunen hitzeiteko ba te sueltas” [TE-02 AITOR].

#### **4.3.2. Zergatik ematen dute (edo ez) jauzia?**

Azaldu berri dugun horren zergatia galdetu zitzaizen galdetegian, alegia, beraien ustez zergatik bai edo zergatik ez duten emango hitanoarekiko jauzia. Baiezkoa erantzun zutenen artean arrazoi hauek aipatu zituzten: “orain hitz egiten dutelako” [GA70M], “gustatzen zaitelako” [GA33N], edota “zeba ikasiko dut” [GA72M]. Gehiengoak eman duen arrazoia da inguruneak horretara bultzatuko dituela uste dutela: “Nere familiako guztiek hitz egiten dutelako” [GA01M] edo “gaztek normalen hika hitzeiten duelako” [GA04M]. Bakarkako elkarrizketetan ere azken arrazoi hori nagusitu da, “ordun nola lengon nere anaie launekin hikaz ai ziela hitzeiten jolastu bitartean ikusi nun, ba horreatik nike ustet hasiko naizela, 13 urtekin edo.” [BE-01M] edo “ikasten jungo naiz geyo ta nola nere atte ta ikusteituten iteuela ba pentsatzet nik e baietz” [TE-03M] bezalakoak esan baitituzte.

Galdetegiko galdera ireki baten bidez ere galdetzen zitzaizen horri buruz. Hitanoarako jauzirik egin ez izana azaltzeko bost arrazoi aipatu dira: “Zuka gehiago gustatzen zaitelako” [GA09M], “orduako jungoa” [GA15], “etzait gustatzen” [GA76N], edo “iñoiz eztegelako jakin eta uste det eztegelako jakingo” [GA90N] izan dira eman dituzten arrazoiak.

Ezagutza eta nahia badutela esan arren, oraindik jauzia ez badute eman arrazoi hauengatik dela diote bakarkako elkarrizketetan eta talde eztabaidetan: lotsa “nik lotsa daket behintzat hikaz hitzeiten hasteko” [BE-04M] edo inizatiba falta “launek hasteienen nire hasiko naiz” [BE-04M]; “DBH 1en eo hasiko gea gehio hitzeiten ya

ondoko herriekin juntatze geanen. Baño eske oain gelan gutxi gea hitzeite deunak” [TE-01 XUBAN ETA MARKEL]. Ikasgelako guztiek hitanoaren ezagutza eta erabilpena edukitzeko eskola edo, hobeto esanda, irakaslea baliabide ona ikusten dute: “Irakaslek hitzeitebau modu batea guk hala hitzeite deu. Hikaz hitzeingo bazun nik e hika hitzeingo nun” [BE-01M]; “Ba Ana hikaz hitzeiten haste bada eo eztaikit, lan bat prestatu eo hikaz ta aber, iual jendea hastea zerbait iten” [BE-03M], hikaz ite bazun ba ordun igual denak ikasiko genun ta gero hola denak alko zuen eabili” [BE-04M].

Ikerketa-galdera honi buruzko emaitzetan ikusten denez, gehiengoak ezagutza etxetik jaso arren, hitanorako jauzi horrek lagunekin eta eskolaz kanpo izan behar duela aipatu dute, askori etxean gurasoekin ez baitie uzten hika egiten. Ikertu diren gazte zaharrenean arteko mutilek soilik eman dute jauzia, nahiz eta gazteagoek ere tarteka erabili hitanoa. Ezagutza eta nahia behar dutela jauzia emateko ikusi da, baina horrez gain, lotsa handirik ez edukitzea eta inizatiba puntu bat edukitzea, oro har ez baitute lehenengoak izan nahi hitanoa erabiltzen. Hau da, lagunekin batera daudenean norbaitek behintzat inizatiba izatea hitanoz hitz egiten hasteko, ahal bada bere lagun bat, edo bestela irakaslea.

## **5. ONDORIOAK**

### **5.1. 1. ikerketa galdera: Zer harreman dute Alegiako haurrek hitanoarekiko?**

Alegiako gazteek eremu ezberdinetan hitanoarekin nolako harremana duten ikertu da, eta ia denek eremu batean edo bestean harremana dutela ikusi da. Gehiengoak kalean entzuten du, beraz Alegiako herrian hitanoa presente dagoela esan genezake baina kontuan hartu behar dugu Bereziartua eta Muguruzak (2018) esandakoa: hitanoa erabiltzen den ingurunean toka erabiltzeko joera handiagoa dagoela eta hitanoak mutilen artean protagonismo gehiago duela.

Errealitate hori islatzen da Alegian ere: orokorrean gazteen artean nokaren presentzia urria nabaria da eta, bereziki, nesken artean baita hitanoa ere (nesken artean hitanoa erabiltzen den zenbait kasutan toka erabiltzeko joera dagoela ere ikusi da), elkarriketa oso oso gutxi entzun baitira nokaz edo/eta hitanoz nesken artean. Horrez gain, gazteek ere adierazi dute neskei gutxiago entzuten dietela hika eta noka

ez dutela ia entzuten, ia denek ezagutzarik ere ez duela aitortuz; eta duten gutxiak etxean jaso dutela kontuan hartuz.

Ikerketa emaitzak hizpide hartuz, nahiz eta oso gutxi hika egin ezagutza minimo bat dutela ikusi da, beraiek hala esan dutelako eta galdetegiko item batean asko izan direlako zuzen desberdindu duena hitanoa zutanoarengandik. Baina ezagutza sakonago bat lortzeko umeak ingurune hurbilago batean entzun behar du hitanoa nire ustez, etxean edo lagun-taldean adibidez. Lagun-taldean oro har ez dutela hitz egiten ikusi da, ondorioz etxea da hitanoaren ezagutza sakon bat transmititzeko gune bakarra. Hala ere, ikerketa emaitzak kontuan hartuz ondorioztatu genezake gaztea mutila bada transmisio horizontal bidez (eta ez etxetik) jaso dezakeela hitanorako ezagutza sakona (soilik toka) eta beraren hizkuntza-ohituretan erabili. Aldiz, neska batek zailtasun gehiago ditu hika ikasi eta egiteko etxean jaso eta erabiltzera bultzatzen ez bada; kalean, eskolan eta lagunartean neskei gutxiago egiten zaielako hika. Kasaresek (2012) esan arren euskararen transmisioan horizontaltasuna gailentzen dela egun, ez dela gertatzen txikienen artean Alegian hitanoarekin esango nuke; ikertuen ia gehienak ezagutzaren transmisioa modu bertikal batean jaso dutelako.

Hala ere, etxean hitanoa jaso ez dutenek hitanoaren ezagutza sakona lortuko dutela iruditzen zait (gehienbat mutilek eta soilik toka), ikertu diren zaharrenean artean dagoeneko ikusten baita hitanoaren presentzia gehiago eta modu horizontal batean sakon ikasten eta erabiltzen hasi direla, modu bertikal batean hitanoaren ezagutza eskuratzeko aukerarik eduki ez dutenak.

Alberdiren (1993) ustez adina/belaunaldia, sexua, kidesasuna eta laguntasuna dira pisu gehien duten aldagaiak hitano hiztunak hitanoa erabili edo ez aukeratzeko garaian. Nik bi hitano-hiztun profil desberdinduko nituzte eta horren arabera aldagai batzuk besteak baino pisu gehiago dutela esango nuke. Lehenengo profillean oraindik hitanorako jauzia eman ez dutenak baina noizbehinka hitanoa erabiltzen dutenak. Hauentzat testuingurua, sexua, adina/belaunaldia eta laguntasuna aldagai garrantzitsuak dira, baina garrantzitsuena hizketa-gaia, soilik momentu puntaletan erabiltzen baitute hitanoa, hizketa-gaia kontuan hartuz. Bigarren profileen egongo lirateke hitanorako jauzia eman dutenak, ikerketa honetan parte hartu duten zaharreneetako batzuk. Horiek adina/belaunaldia, testuingurua eta sexua ere asko hartzen dute kontuan, nahiz eta beste profilek baino arreta gehiago eman sexuari. Kidesasuna ere kontuan hartzen dutela adierazi dute, beste profilek ez bezala eta

laguntasuna ez dela hain erabakigarria adierazi dute. Lehenengo profileko gazteentzat hizketa-gaia da aldagai garrantzitsuena baina bigarren profilekoentzat, nahiz eta erabakigarria izan, ez du hainbesteko garrantzirik.

Alberdik (2011) hitanoaren definizioan esan bezala, Alegian ere hitanoa “gehienbat berdinen artean eta goitik beherako harremanetan entzun ohi da, ez horrenbeste behetik gorakoetan”. Gazte batzuk adinez zaharrago direnei ere egiten dietela diote, beste batzuk zaharragoei ez dietela egiten aldiz, hauek uzten ez dietela arrazoituz. Hala ere beraiei gazteagoek egitea gustatuko litzaiekela adierazi dute denek, etorkizunean seme-alabek beraiei egitea gustatuko litzaiekela adibidez, horiek ikasi eta praktikatu dezaten. Beraz, nahiz eta belaunaldia kontuan hartu, etorkizunean aldagai hori hika egiteko hain garrantzitsua ez dela izango iradokitzen dut.

## **5.2. 2. ikerketa-galdera: Alegiako haurrek zein iritzi eta uste dituzte hitanoarekiko?**

Egungo gazteek historian zehar hitanoari atxikitutako konnotazio txarrik ez dutela jaso esaten digu Beitiak (2017) eta Alegiako gazteen artean ere hori islatzen da. Galdetegian konnotazio ezkorra duten adjetiboak gutxien aukeratuak izan baitira eta elkarrizketetan ez baitituzte ia aipatu, nahiz eta zehazki horren inguruan galdetu. Legorburuk (2018) esan bezala egoera irauli egin da, eta orain, Alegiako gazteek ere hitanoa polita, euskaldunagoa eta askeagoa dela diote. Hala ere, historian zehar hitanoak izan dituen ezaugarri ezkorren zantzuak geratzen direla ikus genezake, gutxi batzuk lotu baitute hitanoa “itsusia” edo “zakarra” bezalako ezaugarriekin eta baserritarren edo lehengo hizkerarekin. Beraz Alberdi-Zumetak (2019) esan bezala, hitanoaren banaketa bitarrak ez du bat egiten egungo jendartearen beharrekin.

Horrez gain Beitiarekin (2017) bat egiten dute herriko gazteek, hitanoak berezko umore-kodea duela eta konfiantza eta gertutasuna adierazten duela alegia. “Grazie iteko” edota “konfiantza gehio emateu” bezalakoak esan baitituzte hitanoaren inguruan galdetzean.

Esan bezala beraz, gazteek hitanoaren inguruko ideologia baikorrago bat dute egun eta horrek eragina du hiztunaren jarreretan, hautuetan eta erabileran, Jolyk eta Urangak (2010) esandakoarekin bat eginez. Ikerketako emaitzetan ikus genezake hori, beraiei hika egitea gustoko dutela adierazi baitute eta gehiengoak beraiek egitea

ere gustuko dutela. Nire ustez, beraz, hitanoaren erabilera nahi bestekoa ez izatearen arrazoi nagusia ez da lehen izan zitekeen hitanoa gaizki ikusia dagoenaren ideia, baizik eta ezagutza falta izatea, eta horren ondorioz datozen lotsa, gaizki egitearen beldurra eta gaizki eginez gero besteak barre egitearen beldurra.

Hika egitea gustatuko litzaioke gehiengoari, baina behar bat dute, hika egiten ikastea. Ia denak prest daudela hika ikasteko adierazi dute, denek ikasi eta denen (edo gehienen) artean hika egin ahal izateko bultzatzaile nagusia eskola dela adieraziz.

### **5.3. 3. ikerketa-galdera: Zein ezaugarri ditu hitanorako jauziak Alegiako haurren kasuan?**

Alberdi-Zumetak (2019) dio hika hitz egiten hasteko prozesua modu inkontziente batean (txiki-txikitan) edo modu kontziente batean eman daitekeela. Nire ustez hika hitz egiten ume asko etxean modu inkontziente batean hasten dira, etxean hitanoa erabili ohi duela esan duenik bai baitago (etxean zaharragoei egiten uzten dietenek), etxean jauzia txiki-txikitatik modu natural eta inkontziente batean eman dutela.

Aldiz, lagunekin jauzi hori modu kontziente batean eta zaharragoetan ematen da, dagoeneko jauzia eman dutenek esan baitute beraien artean denetarako erabiltzen 10 urte ingururekin hasi zirela, ordura arte hitz egin arren jauzia eman gabe zeudela; ikerketan parte hartu duten gazteenak bezala.

Eskolan, ordea, jauzi hori ez duela inork eman esan dute. Batetik, instituzioa ez delako gunea hitanoa hitz egiteko; eta, bestetik, oro har irakasleari ondo ez zaiolako iruditzen. Genero batetik bestera erantzun desberdinak daude, jauzia dagoeneko eman dutela esan dutenak, guztiak mutilak izan baitira, bai etxean, bai lagunartean.

Jauzia eman ez arren, emango dutela esan du ikertutako gazteen erdiak. Nire iritziz, Alberdi-Zumetak (2019) esan bezala, gazteentzat hitanoa erabiltzearen arrazoa ez da edo ez da izango "hitanoaren aberastasun kulturala" mantentzea, baizik eta hitanoa gogoko izatea eta erabilgarria izatea beraien hizketarako.

Baina jauzi hori emateko, egunerokotasunean hika hitz egiteko, alegia,



ezagutza bat behar dute eta hor izugarritzko arrakala dagoela sumatzen da, beraiek ere adierazi baitute hika ez egitearen arrazoi nagusia ezagutza falta dela, nahiz eta gustatzen ez zaiolako erabiltzen ez duela esan duenik ere egon.

Ezagutza faltaren arazoa erdi-gainditua daukatela diotenek beste bi arrazoi aipatzen dituzte hitanorako jauzia ez emateko, nahiz eta tarteka hika egin: lotsa eta iniziatiba falta. Askok lotsa dutela adierazi dute, lotsa ematen dietela jauzi hori eman eta beti edo ia beti hika egiteak. Alberdi-Zumetak (2019) esan bezala, ingurua eta gertuko harremanak alde izatea ezinbestekoa da, ingurunaren babesa eta harreman hikatzaileak izatea. Harreman hikatzaile gutxi dituztela, hau da, lagunaren artean gutxi izango liratekeela hika egingo luketenak jauzia emanaz gero ere aipatu dute eta ingurunea prest ikusten dutenean emango dutela jauzia.

Bereziartua eta Muguruzarekin (2020) bat nator seme-alaben tratamendu aukeraketan eragina duela gurasoak bere ingurunearekin duen hitz egiteko moduak esaten dutenean. Alde batetik beharrezko ezagutza eskuratzeko eta beste aldetik, Kaseresek (2012) esan bezala, hizkeraren egitura zurrunez gain, hitanoaren arau sozialak, ohiturak, usteak eta balioak ere transmititzen direlako eta horrek ezagutzaz gain erabilpenean ere onurak ekartzen dituelako, beti ere ideologia baikor bat transmititzen bada, baina hala gertatzen da gaur egun, arestian ikusi bezala.

Jauzi hori modu kontzientean egiten bada, Pujolarren eta Gonzalezen (2013) *hizkuntza-mudantza* kontzeptuan diote tratamendu berri bat erabiltzen hastearen prozesua bizitzako beste aldaketa garrantzitsuekin batera gertatzen dela. Ikertu diren haurrak aipaturiko bizitzako bi aldaketa garrantzitsuen artean daude: Haur Hezkuntza eta DBH artean alegia. Nire aburuz, Alegiako gazteen artean Haur Hezkuntzan sartzean ez da hizkuntza-mudantzarik gertatzen, nahiz eta gertatzen den hitanoarenganako hurbilketa bat etxean hitanoarekin harremanik eduki ez dutenentzat. DBH hasierako etapa, aldiz, oso erabakigarria dela iruditzen zait, batzuk hitanorako "mudantza" horretan dagoeneko hasita daudelako eta ezagutza eta gogo nahikoa badutela somatzen delako, eta gainera inguruko herriko gazteekin elkartuko direlako. Etorriko direnetako batzuk ere hika egiten dutela badakitenez, lotsa gutxiago eta "gutxi gara hika egingo genukeenak" ideiak alde batera geratuko lirateke, hau da, DBHn sartzeko mugan dagoen gehiengoaren traba nagusia jauzia ez emateko.

Esan den bezala, beraz, hitanoaren inguruko ideologia oso baikorra dute gaur

egun gazteek baina hika ez egitearen arrazoi nagusia ezagutza falta da, eta horren ondorioz etor litezkeenak: segurtasun falta, gaizki egitearen beldurra... Beraz, hezkuntzak hitanorako ezagutzaren transmisioan jarri beharko luke begirada, eta beharrezko balitz erabilera landu.

## 6. BIBLIOGRAFIA

Alberdi, Xabier (1993). Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak. *Fontes Linguae Vasconum*, 64, 425-442.

Alberdi, Xabier (1994). Hitanoa non eta nork erabiltzen duen. *Euskera*, 3, 983-993.

Alberdi, Xabier (1996). *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Iker 9. Euskaltzaindia.

Alberdi, Xabier (2011). euskararen tratamenduak. In P. Salaburu, P. Goenaga eta I. Sarasola (koord.), *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. UPV/EHU: Euskara Institutua.

Alberdi Zumeta, Laura (2019). Eta hik ze uste dun/k? Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan: usteak, balioak eta diskurtsoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 113(4), 129-154.

Altuna, Olatz, & Basurto, Asier (2013). *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Azkue, Xabier (2009). *Zumaian hitanoa bultzatzeko egitasmoa. Erabilera eta transmisioa giltzarri* [HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondokoa, UPV/EHU]. Graduondokoaren artxibo digitala, <https://hiznet.asmoz.org/ikerketa-lanak/>

Aztiker eta Villabonako Udala (2021). *Amasa-Villabonan hitanoren egoeraren azterketa, 2020*. <https://www.hitanoaz.eus/soziolinguistikatik>

Barrios, Mikel, Osa, Erramun, Mñoa, Inma, Elorza, itziar eta Boan, Kristina (2008). *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa eta Euskaltzaindia.

- Beitia, Iñigo (2017). Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 103, 139-166.
- Bereziartua, Garbiñe eta Muguruza, Beñat (2018). Erabileraren gakoak egoera informaletan eta gazteen artean: hitanoa Azpeitiko gazteen artean. *Hermes*, 60, 24-28.
- Bereziartua, Garbiñe eta Muguruza, Beñat (2020). Euskal hizkun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (Arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: ekarpen berriak euskararen ikerketari* (127-140 or.). Nafarroako Gobernu.
- Bereziartua, Garbiñe eta Muguruza, Beñat (2021). Hizkuntza-tratamenduak Dragoi Bolan: hierarkia, gaiztotasuna eta etsaitasuna. *Fontes Linguae Vasconum*, 132, 319-348. <https://doi.org/10.35462/flv132.3>.
- Elortza, Ainara (2021). *Hitanoa Haur Hezkuntzan* [Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU]. Hitanoaz.eus-eko artxiboa, <https://www.hitanoaz.eus/beste-esparru-batzutatik>
- Eustat. (2021). Gipuzkoako biztanleria barruti eta zentsu-sekzioen arabera, sexuaren, adin-taldeen eta naziotasunaren arabera. Euskal Estatistika Erakundea.
- Joly, Lionel eta Uranga, Belen (2010). Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak. In A. Zarraga (bateratzailea), *Soziolinguistika eskuliburua* (185-230 or.). Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.
- Juaristi, Patxi. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- Kasares, Paula. (2012). euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 82, 15-52.
- Legorburu, Onintza. (2018). Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 109, 111-138.

- Maia, Julian eta Larrea, Kepa. (2008). *Euskara batua eta euskalkiak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan*. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Martínez de Luna, I., Suberbiola, P., & Basurto, A. (2009). Ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabileraren azterketa. Arrue programa. 2003-04 ikasturtetik 2006-07 ikasturtera egindako azterketa-lana. Ulibarri Programa.
- Ortega, Ane, Amorrortu, Estibaliz, Goirigolzarri, Jone. eta Urla, Jacqueline (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko unibertsitatea.
- Ozaita, Josu (2014). Hurbilpen bat tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 91, 83-103.
- Pujolar, Joan, & González, Isaac (2013). Los 'mudes' lingüísticos y la desetnización de la elección lingüística en Cataluña. *Revista Internacional de Educación Bilingüe y Bilingüismo*, 16 (2), 138-152.
- Soziolinguistika Klusterra (2021). *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, 2021. Emaizen txostena*.
- Yurramendi, Xabier (1996). Hik eta... . *Hizpide*, 71, 11-22.
- Zabala, Uxue (2021). "Kantu kantari, bai hi eta bai ni!" Hitanoa biziberrituz ikasleen ahotan. Gradu Amaierako Lana, EHU.

## 7. ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA: BEHAKETAREN TXANTILLOIA

DATA	NON	NORK (M= MUTILA eta N= NESKA)	NORI (M=MUTILA eta N= NESKA)	NOLA?			OHARRAK
				TOKA	NOKA	NEUTROA	

### 2. ERANSKINA: ALEGIKO GAZTETXOEI ZUZENDUTAKO GALDETEGIA

## ALEGIAKO GAZTETXOAK HIKA

Kaixo:

Hitanoaren (hika) inguruko ikerketa bat ari gara egiten eta zure laguntza behar dugu. Galdera hauei erantzungo al zenieke, mesedez?

### 1. DATU OROKORRAK

#### 1. IZEN- ABIZENAK

---

#### 2. GENEROA

- Neska  
 Mutila  
 Beste bat

#### 3. MAILA

3. maila  
 4. maila  
 5. maila  
 6. maila |

4. JAIOLEKUA (HERRIA / AUZOA)

- Alegia
- Alegia inguruko herri edo auzo bat (Orendain, Baliarrain, Aldaba...)
- Eskualdea (Tolosaldeako beste herriren bat)
- Euskal Herria
- Euskal Herritik kanpo

5. BIZILEKUA

- Alegia
- Alegia inguruko herri edo auzo bat (Orendain, Baliarrain, Aldaba...)

## 2. HIZKUNTZA OHITURAK

6. ZEIN HIZKUNTZATAN SENTITZEN ZARA EROSOAGO?

- Euskara
- Gaztelania
- Beste bat

7. ZURE ETXEAN NOLA HITZ EGITEN DA?

- Dena euskaraz
- Gehiena euskaraz
- Dena gaztelaniaz
- Gehiena gaztelaniaz
- Euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean

### 3. HIKA

8. Nola ari dira hitz egiten honako esaldietan? (Markatu aukera bakarra lerro bakoitzean)

	ZUKA	HIKA	EZ DAKIT
Nekatuta neok ta nahiagoit etxen geatu	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Eztizut arkatzik utziiko hoi itte baiazu e!	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Atzo attekin mendia jun ziñen?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Bihar jungo al haiz entrenamentua?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Irakaslek esan ziak biharko etxeko llanak zerekela	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Liburu bat irakurtzeko gogoak daket	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Miñe hartu al den?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Emaitek 5 urte dazkekela	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Launduko al diak partiduako motxila prepatzen?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Esan diot paken uzteko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Oaindi 10 minutu geatzeituk klasea bukatzeko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Hau azkenekoa da ta ya bukatuzu	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

9. HIKA HITZ EGITEA ZER DEN BADAUKIZU?

- Bai  
 Ez

10. HIKAZ HITZ EGITEN ENTZUTEN DUZUNEAN ZER DATORKIZU BURURA?  
(Aukera bat baino gehiago marka ditzakezu)

- Goxoa
- Konfiantza
- Gertutasuna
- Familia
- Lagunak
- Eskola
- Itsusia
- Zakarra
- Inbidia
- Brometarako
- Gazteak
- Gurasoak
- Aiton-amonak
- Neskak
- Mutilak

11. HIKA HITZ EGITEN ENTZUTEN AL DUZU? HALA BADA, NON? (Aukera bat baino gehiago egon daitezke)

- Familian
- Eskolan
- Kalean
- Telebistan / Interneten
- Beste nonbait
- Inoiz ez dut entzuten hika hitz egiten

12. ZURI NORBAITEK HIKA HITZ EGITEN DIZU?

- Bai
- Ez

13. BAIETZ ERANTZUN BADUZU, NORK EDO NORTZUK?

---

---

---

---

---



14. GUSTATZEN ZAIZU ZURI HIKA HITZ EGITEA?

- Bai  
 Ez  
 Ez dakit

15. EZETZ ERANTZUN BADUZU, GUSTATUKO LITZAIZUKE?

- Bai  
 Ez  
 Ez dakit

16. NOIZBAIT ERABILTZEN DUZU HIKA?

- Beti  
 Askotan  
 Gutxitan  
 Inoiz

17. NOIZBAIT HITZ EGIN BADUZU HIKA, NOREKIN?

---

---

---

---

---

18. HIKA EGITEA GUSTATZEN AL ZAIZU?

- Bai  
 Ez

19. GUSTATUKO LITZAIZUKE HIKA GEHIAGO EGITEA?

- Bai  
 Ez

20. USTE DUZU HANDIAGOA ZARENEAN EGINGO DUZULA HIKA?

- Bai  
 Ez

21. BAIETZ ERANTZUN BADUZU, NOREKIN?

---

---

---

---

---

22. ZERGATIK USTE DUZU HANDIAGOA ZARENEAN HIKA ERABILIKO DUZULA (EDO EZ DUZULA ERABILIKO) ?

---

---

---

---

---

23. ESKOLAN HITANOA LANTZEA GUSTATUKO LITZAIZUKE?

Bai

Ez

24. BAIETZ ERANTZUN BADUZU, ZERTARAKO? (Aukera bat baino gehiago aukera ditzazkezu)

- Nik ikasteko
- Nire lagunek ikasteko
- Praktikatzeke
- Hikaz hitz egitera ohitzeko

25. GAI HONEN INGURUAN ZERBAIT GEHIAGO ESAN NAHI BADUZU, AURRERA!

---

---

---

---

---